

Herririk Herri | 8

70 ikaslek Atxondoko ikastetxe berria estreinatuko dute astelehenean



Berbaz | 10

E. Huerta: "Naturan dagoena aurkeztu gura dut; beti egon da biodibertsitatea"

Kirola | 18

Gazte mailako Espainiako atletismo txapelketa Durangon jokatu da

ERREPORTAJEA | 2-3

Atxarte berreskuratzeko aitzakian zabortegia egin gura dutela diote

Adifek AHTaren hondakinak Atxartera eroan gura ditu, harrobiak berreskuratzeko plan baten barruan Independenteen onespenerekin. Bilduk aldiz proiektuaren atzean zabortegia eraikitzeke asmoa dagoela kritikatu du. EAJk hainbat zalantza agertu ditu proiektuaren inguruan



Atxarte eta Atxa Txiki harrobiak; 1995etik daude itxita.

DURANGALDEA | 5

BEZaren igoerak kontsumoa jaitsiko duen beldurrez

Durangaldeko ileapaindegi, denda, kultur areto zein gasolindegietan diotenez, BEZaren igoerak hainbat enpresa zarratuko ditu



OTXANDIO | 8

Elkarbizitza baketsua sustatzeko foroa sortuko dute

KULTURA | 13

Bertsioen Gaua, Durangoko taldeek jaietan parte hartzeko

Zaldibar | 6

Erakusketa aretoa sortu gura dute anbulategi alboan

Berriz | 7

Herri bazkaria egingo dute, Irailaren 11 gogora ekartzeko

Durango | 4

Sai arre bat erreskatatu dute udaltzainek Tabira auzoan

Elorrio | 9

Bebek kontzertua eskainiko du txosnetan, jaien azken txanpan

ZURE AMETSAK GAUZATZEKO PREST?

EKINN!
gure metak gogortuz, lanerako erabildu dituzunak

INFORMAZIO GEHIAGORAKO ZATOK WORKSHOPERA!

ZER DA?
Finlandiako Team Academy-ren lan-taldeetan oinarritutako metodologia erabiliz, ikasleekin batera ekintzaileak bultzatzeko martxan jarritako programa da.

HELBURUA:
pertsonek enpresa sortera eta lan-taldeak gestioatzeko beharrezko diren kompetentzietan trebatzea.

NORI ZUZENDUTA?
- norbere ametsak gauzatu nahi dituztenek
- negozio bat martxan jarri nahi dutenek
- EGITEN IKASIA, LIBERGEOA eta EKINTZAILETZAN trebatu nahi dutenek
- lan taldean lan egin nahi dutenek
- berrituaketa kultura eta ekintzailetzan sinesten dituztenek

info WORKSHOP
IRAILAK 20
17:00etan
Lea Artibai Berrituaketa Guinea
AZARO FUNDAZIOA
MARKINA-XEMEIN
workshop-ean apuntatzeko:
T: 94 6169 172
azaro@earthik.com
www.azarofundazioa.com

Metodologia berritzaile eta parte-hartzailea, EGITEN IKASIAZ metodologian oinarritua

azaro fundazioa

MONDRAGON ASTIMIAKATEMIA
we create our future through the
creating team learning competences

mik

Atxarte, zabortegia edo harrobien berreskuratzea?

AHTaren hondakinak Atxarteko harrobi abandonatuetara eramatea berreskuratze plan baten barruan kokatu dute Abadiñoako Independentteek. Plan horrek zabortegi bat eraikitzeko asmoa ezkututzen duela kritikatu dute hainbat eragilek eta EH Bilduk

Atxarte eta Atxa Txikiko harrobi zaharretan Abiadura Handiko Trenaren hondakinak botatzeko asmoak aurrez aurre jarri ditu Abadiñoako Independentteak eta oposizioa. Independentteek harrobien berreskuratze plan bati buruz berba egiten duten bitartean, AHTaren isurtegia izango dela salatu du Abadiñoako Bilduk. EAJk, berriz, abadiñarren mesedetarako beharrea Adifen alde jardutea leporatu dio alkateari.

Atxarteko harrobi zaharretara hondakinak botatzeko proposamena Adifen eskutik heldu da udalera. Izan ere, Adif trenaren obretatik ateratako hondakinak botatzeko arazoak izaten ari da. Udalaizetik Elorriora arteko obretan sortutako soberakinei irtenbidea eman guran, Abadiñoako udalarengana jo zuten. AHTaren hondakinak Atxarten botatzearen truke, 1995etik abandonatuta dauden Atxarte eta Atxa Txiki harrobiak berreskuratuko dituztela azaldu zuten udalean.

“Urrezko aukera”

Jose Luis Navarro alkateak (Abadiñoako Independentteak) azaldu duenez, harrobiak oso egoera txarrean daude eta udalak ezin du haiek berreskuratzeke egin behar. Liratekeen lanen kostua bere gain hartu. “Adifek aurkeztu digun proiektua urrezko aukera da harrobiak behar den moduan uzteko”. Proiektuaren datu zehatzagoak argitzeko, prentsaurreko bat antolatuko duela aurreratu du.

AHTaren inguruan duen iritziaz galdetuta, gauzak argi dituela dio alkateak: “Independentteok beti egon gara Abiadura Handiko Trenaren alde, baina ez Euskadin egiten dabiltzan proiektu honekin. Beti defendatu dugu estatuagaz eta Europagaz abiadura handiko lotura izatea, baina Euskadiko hiru hiriburuak tren honekin lotzeagaz ez gatoz bat, distantziak oso txikiak direla deritzogulako”.

Eragin-azterketa auzitan

Abadiñoako Bilduk gogor kritikatu du Berreskuratze Planean ingurumen eraginaren azterketarik ez egin izana. Jaurlaritzak atzera bota du Abadiñoako Bilduk Ingurumen Sailaren txostenari aurkeztu dion helegitea. Hala ere, Atxartera bota ahalko ziren hondakin inguruan arazoia eman diete eta lehen mailako aridoak baztertu dituzte

(hormigoia eta abar). “Orain gaia auzitegietara eraman ala ez aztertzen gabiltza”, esan du Bilduk.

Ingurumen eraginaren azterketa Bizkaiko Foru Aldundiak ere beharrezkotzat jotzen du. Erakunde horrek kaleratutako txostenean azaltzen duenez, “lur eta harri kopuru oso handia denbora luzez lekualdatuko da, 340.000-1.070.000 metro kubo artean, eta horrek eragin handia izango du inguruaren topografian”. Aldundiak bere txostenean gogoratu duenez, Parke Naturalaren barruan kokatutako harrobiak dira. Parkea, Red Natura 2.000 sarearen barruan dago eta gainera Garrantzia Komunitarioko Leku izendatua dago.

Eneko Etxebarria EAJren zinegotziak ere ingurumen era-



AHTaren obrak Durangoko Tabira auzoan. Kepa Aginako



Atxarte Bizirik-en mobilizazioa. Pablo Garitaonandia


Jaurlaritzak atzera bota du Bilduk aurkeztu dion helegitea

EAJ: “Beharrezkoa da berreskuratzea, baina ez edozein preziotan”

EH Bildu: “Herritarren geroa hipotekatzen dihardute”

“Isurtegi erraldoi” izendatu duten egitasmoa bertan behera uztea exijitu du Durangaldeko EH Bilduk. Uztailean Atxarten emandako prentsaurrekoan gogor kritikatu zuten proiektua. Endika Jaio Mañarik alkatea (Bildu), Aralarreko kide Amparo Ereñaga eta Dani Maeztu legebiltzarkidea ere egon ziren agerraldian, Durangaldeko EAren beste hiru ordezkariak: Roberto Frontera, Juanito Agirre eta Isidro Gorrotxategi.

“Egitasmoa, hondamendi sozial eta ekonomikora garamatzaten politiken ondorio zuzena da”. Diotenez, horren atzean “interes pribatuei eta hondo jotako eredu neoliberaleri men egiten dieten instituzio publikoak daude”. “Herritarren geroa hipotekatzen dituzten azpiegitura erraldioen bultzadarekin egin gura diote aurre egoera sozio-ekonomiko larriari, zerbitzu eta sektore publikoetan inbertitu beharrean”. ■ A. B.



Atxarteko harrobiek 17 urte daramatzate

ginaren azterketaren garrantzia nabarmendu du: “Beharrezkoa da berreskuratzea, baina ez edozein prezio ordainduta”. Proiektu hau aukera ona izan daitekeela dioen arren, Etxebarriak egiten ari diren modua arriskutsua izan dela uste du. Herritarren mesedetarako beharrea, Adif enpresaren mesedetarako izango dela gaineratu du. EAJko zinegotziaren ustez, Abadiñoako alkateak duen interesetako bat hau da: proiektu honen truke Mendiola auzorako sarbide berri bat lortzea.

Alkateak dioenez, Patronatoaren iritzia kontuan hartuko du

“Biribilgune bat Muntzaratz aldean egin gura dute, baina proiektu horiez da berria. Inguru horretan etxebizitzak eraikitzeko asmoa zegoenean ere, biribilgune hori aurreikusita zegoen”, dio EAJk. Beste hainbat berreskura-



'Atxarte Bizirik' mugimenduak harrobiak geldiarazi zituenekoa

1990eko hamarkadan Atxarten sortutako mugimendu ekologistek harrobien jarduna geldiaraztea lortu zuten. Hainbat eragileren laguntzagaz, 1990eko maiatzean Urkiolaren Aldeko Batzordea (UAB) sortu zuten. *Atxarte Bizirik* lema erabiltzen zuten. Eskalatzai-leek eta ekologistek martxan jarritako borrorak Atxarte eta Atxa Txiki harrobiak zarratu zituen.

Harrobiko leherketak eteteko, Eguzkiarreko horman hamaka handi batean zintzilikatzea bururatu zitzaizen. Mugimendu hark nazioartean ere oihartzuna izan zuen. Hainbat egun egin zituzten horman zintzilikatu-

ta. Durangaldeko eta baita Bilboko eskalatzai-leek ere txandak egiten zituzten hamaketan. Beste mobilizazio batzuk ere ezagunak egin ziren sasoi hartan.

Harrobiaren ustiapen kontratua amaitzekotan zen, eta Abadiño Udalari eskatzen ziotena zen harrobiak ustiatzen zituzten

Harrobiko leherketak eteteko, Eguzkiarreko horman hamaka handi batean zintzilikatzea bururatu zitzaizen

enpresei kontratu hori ez luzatzea. Hainbat eskalatzai-lek auzitegietatik pasatu behar izan zuten koakzio delitua egotzita, baina guztiak absolbitu zituzten 1992 urtean. Ezziren baka-rrak izan. Abadiño saso hartako alkatea eta beste sei zinegotzi prebarikazioagatik auzipetu zituzten 1995eko urtarrilean. Epai-tegiek udal ordezkari haiek ere absolbitu egin zituzten.

Desnivel aldizkarian, gertatutakoaren kronika idatzi zuen Atxarte Bizirikeko kide Xabier Berasaluzek. Artikuluan azaltzen duenez, Abadiño Udalak eta Eusko Jaurlaritzak Atxarten beste hamar urtean ustiatzeko plana sinatu zuten. 1994ko azaroaren 25ean, ekin-tzaileak harrobiaren hormara itzuli ziren hamaka jarrita eztaudak eteteko helburuagaz, baina aurrera jarraitu zuten obrek: "Jendea horman zintzilikatuta zegoen bitartean eztaudei ekin zieten".

Adierazpenak >

> **Kike De Pablo**
Mendizalea



"Atxartera botako duten materialak ez du ezelango kontrolik izango"

Kike De Pablo mendizale eza-gunak argi dauka Atxarten egin gura dutena ez dela berreskuratzeko plan bat: "Atxarte zabor-tegi bihurtu gura dute. Erakuntzaren zabor guztiak hara botako dituzte. Ez bakarrik lurra eta harria. Porlana, pape-ra eta abar. Tuneletatik ateratzen dutena botako dute". Hara eramango duten materialak ez duela ezelango kontrolik izango gaineratu du De Pablok.

Parke Naturalaren barruan egon arren, harrobien kasuan mugak "mugitu" egiten direla dio, inguru horretan interes handia dagoelako, mendizalearen ustez. Durangaldeko mendikate horretan kalitate oso altuko karea dago eraikuntzarako.

> **Jaime Alonso**
UABko kidea



"Zertarako parke natural bat gero ez badu inork errespetatzen?"

Jaime Alonso eskalatzai-lea Urkiolaren Aldeko Batzordean aritu zen 90eko hamarkadan, Atxarte harrobien jarduna gelditzeko helburuagaz. Parke Naturala erregulatzeko ordenantza sortzerakoan, eskalatzai-leekin eta beste eragile batzuekin elkartu izan direla azaldu du Alonsok. "Ez da argi ikusten zeinek eta zertarako sortu duen plan hau. Hogei urte baino gehiagotan ez dute ezer egin eta bat-batean han sartu eta gauzak egiten hasi gura dute". Kamioirik ere ez dutela handik eramango gaineratu du Alonsok.

Berreskuratze planaren inguruko ingurumen eraginaren azterketa ere ez egin izana kritikatu du eskalatzai-leak.

> **Goizane Azpiri**
AHT Gelditu! Elkarlana



"Zergatik ez dute ingurumen eraginaren azterketa egin gura?"

Iker Oñatek dioenez, Atxarte harrobiak 90eko hamarkadatik darama geldirik eta hogeitau urteotan ez dute inongo interesik jarri, ez bertan dauden eraikinak kentzeko ezta ingurua garbitzeko ere. "Bistakoa da AHTaren tunelen soberakinekin hondakin degi bateraiki nahi dutela obren ondoan, horrela gastuak aurrezteko eta gainera beraien burua zurrizteko". Gaineratu duenez, "Urkiolako Parke Naturalean kokatuta egonda eta Bizkaiko Foru Aldundiaren Ingurugiro Sailak azterketa hau beharrezko dela dioelarik, zergatik ez dute ingurumen eraginaren azterketa egiten?". Proiektu honek ustel usaina duela dio Elkarlaneko kideak.

> **Jose Luis Agirre**
Mendiolako auzokidea



"Udala ez da Mendiolako auzokideekin harremanetan jarri"

Jose Luis Agirre Mendiola auzoan bizi da. Proiektu honen inguruan Abadiño Udalak auzokideekin ez dela hartu-emanen jarri azaldu du. Dautan informazioa *Berria* egunkariak argitaratutako erreportaje bat da.

Agirrek dioenez, harrobiak dauden moduan ez daude ondo, baina berreskuratze plan hau zalantzan jartzen du: "Batek dakilurra bakarrik botako duten Atxarten edo zeezer gehiago. Inguruan erreka bat dago, eta filtrazioak egon daitezke". Mendiolako bidetik joango lirakeen kamioi kopuruaren inguruan arduratuta dago. "Orain auzokideok bakarrik ibiltzen gara bidean".

tze plan gogora ekarri ditu zinegotzi jeltzaleak: "Besteak beste, eskalada eskola bat sortzeko proiektu bat egin dago". Mendiolako auzokideekin udalak ez duela berba egin kritikatu du. "Lehen ere zenbat sufritu zuten ikusita, orain ere hainbeste kamioirekin sufritu egingo dute".

Abadiño Udalak baiezkota eman eta gero, proiektuak hainbat erakunderen oniritzia jaso behar du orain.

Alde batetik, Eusko Jaurlaritzako Industria eta Ingurumen sailek aztertu beharko dute. Bestetik, orain arte bere iritzia ezagutzera eman ez duen erakunde batek ere proiektuaren inguruko azterketa egin beharko du: Urkiolako Parke Naturaleko Patronatoa. Patronatoak PRUG (Erabilera eta Kudeaketa Plan Errektorearen gaztelarazko siglak) deritzon araudia martxan ipini zuen, eta horren arabera aztertu beharko dute plana bere irizpideekin bat datorren edo ez. Patronatoaren kide dira inguruko udalen ordezkariak, elkarteak, ehiztariak, ekologistak, EHNE, EHU eta beste hainbat erakunde. Abadiño alkateak dioenez, Patronatoaren iritzia kontuan hartuko du. ■ J. G.

 Goiuria auzoa 16 - 48215 lurreta (Bizkaia) Tel.: 94 681 08 86
www.asadorgoiuria.com
EZKONTZAK - JAUNARTZEAK - ENPRESA BAZKARI-AFARIAK
BATAIOAK - EDOZEIN MOTAKO OSPAKIZUNAK ...

 **2 pertsonarentzako MENUAK zozkatuko ditugu**
Bidali zure datuak: anboto@anboto.org edo Bixente Kapanaga, 9 48215 lurreta

Nik euskara  irailaren 3tik 21era UDAL EUSKALTEGIAK 
Matrikula zabalik 2013 IKASTURTEA
Dirulaguntzak eta hobariak - 16 urtetik gorakoentzat
Asteleheneetik ostegunera (10 ordu / 6 ordu)
Hizkuntza eskakizunak (1, 2, 3) prestatzeko ikastaroak
Autoikaskuntza zerbitzua internet-en bidez MOODLE
Gurasoak eta Udal langileak - Ikasturteak: urritik ekainera
Bulego ordutegia: 10:00-13:00 / 15:30-18:30 - Ostiraletan 10:00-13:00
Saibi kalea 10, 3A - 94 603 00 40 - euskaltegia@durangoeuskaltegia.net

HERRIRIK HERRI >

f Anboto Komunikabideak
@anboto

DURANGO

Zelaak ikasturte berria Durangon inauguratu du

Hezkuntza sailburuak agintaldiaren balantze ona egin du: "Hartutako konpromisoak bete ditugu"

Landako ikastetxean estreinatu du 2012-2013 ikasturtea Isabel Zela Hezkuntza sailburuak. Astelehenean egin zuen agerraldi publikoa. Landako ikastetxea proiektu sendoaren eredu da Zelaarentzat, eta horregatik egin zuen bertan ekitaldia. Hezkuntza hirueleduna eta Eskola 2.0 lako ekimenak ezartzeaz gainera, integrazioan lan handia egin duela esan zuen. Durangarren konfiantza lortzea ere aitortu zion Landakori.

Sailburuak ezetz esan arren, kutsu politiko eta elektoralak edukitu zuen inaugurazioko bere berbalak. PSE-EEk Eusko Jaurlaritzaren agintea hartu zuenetik hiru urte pasatu dira eta bere sailaren balantze ona egin zuen: "Hartutako konpromisoak bete ditugu".

Zelaaren iritzi, hezkuntza hirueleduna atzera bueltarik bako eredu da

Gainera, ETAz mintzatu zen: "Aurtengoa izango da ETaren mehatxu terroristatik libre hasiko den lehenengo ikasturtea". Iaz ETaren biktimak ikastetxe batzuetara joaten hasi ziren bizipenak kontatzeko, eta aurtengoa ere jarraituko du ekimenak. Antzeko ereduak jorratuko dute genero biontzaren inguruko esperientzia pilotu batean.

Bestalde, joan zen ikasturtean 108 ikastetxe aplikatu zuten hezkuntza hirueleduna. Guztiek errepikatuko dute aurtengoa; 12.000 ikasle jasoko dituzte ikasgaiak euskaraz, gaztelaraz eta ingelesez. Zelaaren iritzi, eredu hori atzera bueltarik bako dela erakusten du ikastetxe horien jarraipenak, eta 2013-2014 ikasturtean sistema osora zabaltzeko asmoa agertu du. Sozialisten beste lehentasunetako bat Eskola 2.0 ekimena izan da. 80.000 ordenagailu banatu dituzte eskolatan eta, adierazi duenez, ordenagailuak erabiltzeko ikaslearen %96aren motibazioa handitu du. ■ M. Onandia



Isabel Zela sailburua, erdian, prentsaren aurrean azalpenak ematen.

Ikasleak gora, baina irakasle kopurua ez

Aurtengoa 6.880 ikasle gehiago hartuko dituzte sare publikoan, eta antzeko baliabideekin egingo dute lan zentroetan. Ikasgeletako ratioak handitu dituzte irakasle bakoitzari zenbat ikasle dagozkion, baina Zelaak neu-

ria defendatu du. Hezkuntza sare handia daukatela eta, ratioak hamarreko batzukigotzea asumitu daitekeela dio. Ez eide muga gorri pasatuko. EAEko eskola ereduaren krisiaren aurreko alternatiba dela uste du. "Hez-

kuntza ukiezina da". Ziurtatu duenez, murrizketetatik libre geratuko da EAEko hezkuntza.

Baina, sindikatuak ez dira iritzi berekoak. ELA, esaterako, gezurretan ibiltzea leporatu dio Zelaari. Sindikatuaren ustez, behar baino 300 behargin gutxiago daude. Aurreko urteetan ere, murrizketak ezkutatzeko ahalegina egitea kritikatu du sindikatuak. ■ M. O.

Sai erre bat erreskatatu dute Tabira auzoan

Antza denez, Mugarratik jaitsi zen herrigunera

Sai erre bat azaldu zen, martitzenean, Durangoko Tabira auzoan. Antza denez, Mugarra mendia ingurutik jaitsi zen Durangora, eta Udaltzaingoak jaso zuen. Erreskatatu aurretik, baina, kolpe bi hartu zituen hegaztiak: trafikoko seinale baten eta ibilgailu

baten kontra. Zumar kalean batu zuten saia udaltzainek. Horrela azaldu du martitzenean jazotakoa lekuko batek.

Lekuko berberak adierazita, gero hainbat sai agertu ziren Durangon, goi aldeetik, hegaztiak.



Sai arrea, martitzenean, Zumar kalean. Bittor Gorosabel

BERRIZ

Frontoian itoginak kendu eta txukuntze lanetan dabilta

Berrizko pilotalekuan itoginak konpontzen eta beste hainbat lan egiten dabilta azken asteotan. Orland Isoird alkateak azaldu duenez, itoginekin arazo handia egon da, eta hori konpontzearen batera, frontoian beste hainbat lan egin dituzte.

Abuztuan hasi dira lanak egiten, eta fatxadak garbitu eta seinalizazioa ipini dute. Frontoia barrutik garbitu, eta kantxa konpontzen dabilta. Alkateak kontatu duenez, jesarleku batzuk apurtuta egon dira eta berriak ipini dituzte. Horrez gainera Berrizko Udalaren armari berria ere ipiniko diote frontoiari.

Konponketa lanak egiteko 50.000 euroko aurrekontua gorde du udalak, eta horrez gainera, Bizkaiko Foru Aldundiak 18.000 euroko dirulaguntza eman du. ■ A. U.

Herri antzerkia egingo dute Irailaren 11 gogoratzeko

Frankismoko biktimei gorazarre egingo diete

Felipe Urriaga alkatea eta beste hainbat berriztarren fusilamendua eta frankismoko biktimak oroitzeko eguna bihurtu da irailaren 11. Aurtengoa, gertaera horiek gogoratzeko Berrizko hainbat kultur taldek herri antzerkia egingo dute irailaren 16an. Udaletxeko parkean izango da, 13:00etan.

Irailaren 11n bertan, lore eskaintza egingo diete Frankismoaren biktimei Felipe Urriaga plazan, 18:30ean. Ostean, kultur etxean gerra bizi izan zuten eta hil diren berriztarren testigantzak proiektatu dituzte, testigantzak batzearen garrantzia nabarmentzeko. ■ A. U.



Martitzenean 18:30ean egingo dute lore eskaintza.

DURANGALDEA

BEZaren igoera, saltzaileen eta erosleen buruhauste

Irailean BEZ zerga igo du Espainiako Gobernuak; kontsumoari zuzenean eragiten dion neurria da

Uztailean Espainiako Gobernuak agindu legez, Balio Erantsiaren gaineko Zergak (BEZ) gora egin du iraila hasteagaz batera. Kontsumoari zuzenean eragiten dion neurria da, eta dagoeneko egoera berrira egokitu behar izan dute merkatariek eta kontsumitzaileek. Adibidez, abuztuaren 31n gasolindegia bete egin ziren, egun batetik bestera goigera aurrezteko. Iurretako Arribide gasolindegiko arduradunak, Asier Zuazuak baieztatu du: "Inoizko lan handiena eduki genuen barikuan". Erregaiaren BEZA %18tik %21era igo da.

Ileapaindegietan %8tik %21erako jauzia egingo du zergak. Hori ikusita, batzuek ilea gutxiagotan moztea erabaki dezakete. Durangoko Iunik ileapaindegiko Jon Sopelanak kritikatu du zerga hamairu puntu igo arren, igoeraren portzentaia %150ekoa dela. "Beharrezkoa zena ia luxuzkoa bihurtuko dute". Sopelanaren ustez, ileapaindegi handiak indartzea eta txikiak desagertzea eragin dezake neurriak. Zergaren kostuaren erdia baino gehiago bere gain hartuko dute Iuniken: ez diote prezioari zerga osoa aplikatuko.

Kulturgintza, egoera zailean Ikuskizunek ere jasango dute %8tik %21erako igoera hori. Zineak edota musikak, esaterako. Plateruena kafe antzokiko gerentseak, Beñat Gaztelu-Urrutiak, krisiaren eruz lehendik ere kontzertuetarako




Erosketa fakturretan BEZaren neurri berriak agertuko dira hemendik aurrera.

asistentzia jaitzita zegoela adierazi du. Neurriak kulturgintzaren egoera ikaragarri zailduko duela uste du: "Antolatzaile eta sustatzaileei igoera hori aplikatzea astakeria bat da. Sektorea dardarakor

Ileapaindegi handiak indartzea eta txikiak desagertzea eragin dezake neurriak

dago". Sarrerren prezioak mantentzea ezinezkoa izango dela dio. Bestalde, tabernako gorakada -%8tik %10era-, merkatarien elkarteak errebisioa egin arte asumitu egingo dute. ■ M.Onaindia

Bizimodua garestitu da irailean



Eguneroko bizimodua garestitu du BEZaren igoerak. Zerga orokorra %18tik %21era pasatu da -PSOEK %16tik %18ra altxa zuen 2009an-, eta zerga murriztua %8tik %10era. Gainera, azken horretako produktu batzuk %21era arte igo dituzte. Oinarriko produktuen inguruko zerga bere horretan mantenduko da, %4an. Atal honetan salbuespen bat egongo da: eskola materialari %21eko zerga ezarri diote. Kontua da oinarriko zatitza definituta ez dauden hainbat gai ere garrantzi handikoak izan ahal direla: pardelak eta antisorgailuak, adibidez -biak %8tik %21era igoak-.

BEZagaz zuloa bete guran Espainiako Gobernuak zoz gainera dago, eta ekonomian sortutako zuloa zelan edo halan betetzeko beharra dauka. BEZaren igoeraz, kontsumotik atera gura du etekina. Baina, denborak esan-

go du neurri berriak zuloa betetzen edo handitzen duen. Kontsumoan beherakada handia egonez gero, makina bat komertzioz ere atea itxi egin beharko dute. Herritarren artean mesfidantza nagusitu da azken aldirian, eta sindikatu zein gizarte eragileek ere greba deialdia egin dute irailaren 26rako. BEZaren igoeraz aparte, Raxoiren gobernuak egindako gainerako murrizketak ere salatu gura dituzte horrela.

Krisia, geratzeko etorri zen Zapaterok zioen ez zegoela krisirik; atzeraldia ei zen. Krisia onartuta, epe laburrekoa izango ei zen. Raxoik ez zuen murrizketarik egin behar, eta Europako Batasunari erreskatea eskatu ere ez. 2012an egonda, badirudi beste erreskate bat laster datorrela. Krisia noiz amaituko den ez dago argi, eta egoera konpontzeko soluzio garbirik ere ez da ageri.

ZALDIBAR

Anbulategi alboan atondu gura dute erabilera anitzeko aretoa

Udalak beheko solairua eskatu dio Osakidetzari, eta negoziatzen ari dira



Osasun zentroaren eraikinean Osakidetzak hutsik daukan lokala erabili gura du udalak.

Osasun zentroaren eraikinean Osakidetzak erabili barik daukan beheko solairua kultur areto bat atontzeko erabili gura du udalak. Erakusketak, hitzaldiak edo bestelako ekimenak egiteko leku aproposa dela deritzote udal arduradunek. Horregatik, Osakidetzak lokal hori udalari zeintzuk baldintzatan utziko dion negoziatzen dabil Bilduren gobernu taldea.

Baigorri: "Inbertsio txiki batekin oso aproposa litzateke falta dugun aretoa izateko"

Arantza Baigorri alkateak azaldu duenez, "hutsik dagoen eraikina izanik, eta kultur etxe barik hainbat ekimen antolatzeke dagoen espazio falta ikusita, Osa-

kidetzak udalaren eskaria ulertu egin du, eta jarrera baikorra agertu du". Osakidetzarekin hartu emantetan dabilta oraindik.

Eraikinarene beheko solairu hori nahiko egoera onean dagoela dio Arantza Baigorri: "Duela gutxi egin zituzten konponketak, eta inbertsio txiki batekin oso aproposa litzateke herrian faltan dugun areto hori izateko". ■ I.E.

Zapatu arratsaldeetarako aisialdirako eskaintza

Urrian hasiko dute Zapatublaren ikasturte berria

Zazpigarren urtea da herriko gazteentzako Zapatublai ekimena eskainiko duena Zaldibarko Udalak. Zapatu arratsaldetan gazteek

euren asisialdia euskaraz gozatu dezaten pentsatua dago ekimena, eta Arrasateko Txatxilipurdi elkar-teak kudeatzen du.

Hamabostean behin, zapatu arratsaldetan batuko dira, urrian hasita, "euskararen erabilera ziurtatu eta indartzea" eta "natura errespetatzen ikastea" helburu hartuta, besteak beste.

Irailaren 10etik 17ra bitartean eman beharko dute izena parte hartu gura dutenek: Udalaren webgunean eskuratu daiteke izen-emate orria. Plaza mugatuak direla ohartarazi du udalak. ■ I.E.

IURRETA

Urteko diru kontuen berri emango dute kofradiak

Kofradi Eguna ospatuko dute Laixiar zelaian, etzi, Iurretako Kofradien Batzordeak deituta

Iurretako sei kofradiak, iraileko bigarren domeka guztietan legez, Laixiar zelaian batuko dira urte osoko diru kontuen berri izateko. Herritar asko batzen dira eta, batzarra egiteko ez ezik, jai eguna ere izaten da.

Hamabietako meza amaitzerakoan hasiko dute Kofradien

Batzar Nagusia. San Marko, Fauste, Goiuri, Santa Maña, Iurreta eta Orozketako kofradiak bakoitzak bere gorabeherak azalduko ditu. Ostean, Mikel Deuna dantza taldeko dantzariak ariko dira; horrela, sanmigeletarako entseguekin hasiko dira. Herriko bertsolarien txanda izango da gero.

Bertsoen ostean, lagun arteko bazkaria egingo dute. Bakoitzak etxetik eroandako jatekoekin eta edatekoekin beteko dute mahaia. Erromeria ere antolatu du Iurretako Kofradien Batzordeak, arratsalderako. ■ A. Basauri

Herritar asko batzen dira eta, batzarra egiteko ez ezik, jai eguna ere izaten da

MALLABIA

Jaietan parte-hartze handia izan dela azaldu du udalak

Aurrekontua %15 jaitsi arren, herriko taldeen laguntzagaz egitarau betea osatu dutela diote

Udalak Andra Mari jaietako balorazioa egin du. Azaldu dutenez, giro onean ospatu dituzte aurten go jaiak. Parte-hartze "handia" izan da, gustu guztietarako ekitaldietan: kantaldiak, kirolak, erro-

tarako ekitaldiak egotea lortu dugu eta herritarrek disfrutatze-ko aukera izatea".

Nesken gomazko paleta zirkuitoko finalean Pradera eta Saezek irabazi dute

meriak, dantzariak, omenaldiak, jolasak, bazkariak, txerri erre eta abar.

Aurrekontua %15 txikiagoa izan da aurten. Hala ere, "herriko taldeen laguntzaz adin guztie-

Irujo eta Laskurain garaile Nesken gomazko paleta zirkuitoko finalean, Pradera eta Saezek irabazi dute Araiztegi eta Etxanizen kontra. Esku pilota partiduan Irujo eta Laskurain atera dira garaile Bengoetxea eta Merino II.aren aurka. Harri-jasotze txapelketako irabazlea Izeta III. a izan da. Aizkolarien arteko deman berriz, Jabi Garitaonandiak irabazi dio Alex Txikoni. Idi-probetan Rafa Alegriak irabazi du (38 unte eta 2,52 m) eta Iñaki Lopategi 2. gertatu da (37 unte eta 1,55 m.). ■ J.G.

Eskolako leiho eta ateak aldatu dituzte oporrak aprobetxatuz

Lehen Hezkuntzako gelak eta irakasleentzako gunea eraberritu dituzte ikasturte berrirako

Mallabiko eskolak prest daude ikasturte berriari hasiera emateko. Leiho eta ate guztiak aldatu dituzte ikastetxeko eraikinean. Obra horrekin isolamendua hobetzea izan dute helburu. Eskola barruko eta kanpoko argiteria osoa ere aldatu dute eta kontsumo baxuko argiak ipini dituzte. Gai-

nera, Lehen Hezkuntzako gelak eta Irakasleen gunea ere eraberritu dituzte. Mila Mondragon alkatea gustura agertu da: "Obra honeguz esan dezakegu eskolaren barrukaldea guztiz berritzea lortu dela".

Proiektu hauek egiteko udalak diru-laguntza izango du Hezkuntza eta Azpiegitura sailetatik, baita Agenda 21etik ere.

Mila Mondragon: "Obra honeguz eskolen barrukaldea guztiz berritzea lortu da"

Obra gehiago

Eskolatik herrigunera doan espaloian ere farola berriak ipintzeko instalazioa prest utzi dute eta farolak noiz ipiniko zain daude. Espaloia eta errepidea banatzen dituen hesia ere margotu dute eta espaloian azken esku bat ematea falta da. Errepidearen konponketagaz batera egingo dute. ■ J.G.

Eskolatik herrigunera doan espaloian farola berriak noiz ipiniko zain daude

Euskara, musika eta kirola ikasi gura dutenei, diru laguntzak

Musika eta euskara ikastaroak diruz lagunduko ditu Iurretako Udalak. 6.800 euro eta 2.600 euro erabiliko dituzte, hurrenez hurren, eskaria egiten duten iurretarren artean banatzeko. Laguntza horiei, beste 1.400 euro batu behar zaizkie: igerilekue-tara joateko, hasierako igeriketa ikastaroak egiteko eta Udako Euskal Unibertsitateko matrikulak ordaintzeko bideratutakoak. Guztira, 11.300 euro.

Eskariak udal erregistro orokorrean edo Ibarretxe kultur etxean egin ahaliko dira, urriaren 1etik abenduaren 7ra. ■ A. B.



Eskoletako gela bat obrak egin ostean.



Eusko Labela duten kalitate goreneko elikagaiak Benetakoaz gozatu

Eusko Label produktuaz gozatzea, hain zuzen ere, gure ekoizleek beren lanean jartzen duten arreta balloesten jakitea da, ingurune pribilegiatu parekaezin bat iraunarazten jakitea da, goi mailako kalitate ziurtatua duten produktuak aukeratzen jakitea da... eta benetakoaren zaporeaz gozaten jakitea da.

Gehiago jakiteak gehiago gozatzea baitakar.



www.benetakoazgozatu.com



hazi

Landa eta itsas ingurunearen garapenerako Eusko Jaurlaritzaren Korporazioa
 Corporación del Gobierno Vasco para el desarrollo del medio rural y marino

ATXONDO

70 ikaslek ikastetxe berria inauguratuko dute astelehenean

Lau eraikinetan banatuta zeuden ikasleak gune berean batuko ditu

Atxondoko lehen hezkuntza-ko ikastetxe berriak astelehenean irekiko ditu ateak lehenengoz. Horrela, orain arte hainbat eraikinetan sakanatuta zeuden 70 ikasleak gune berean

Uztailean, bertaratu ziren gurasoek azpiegitura berriak bisitatzeko aukera izan zuten

batuko ditu azpiegitura berriak. Orain arte, ikasleak lau eraikinetan banatuta zeuden; edo eraikin aurrefabrikatuekin, edo etxebizitza blokeen lokaletan, edo ikastetxeko eraikin zaharrenean ikasten



Ikastetxeak hiru solairu ditu; lehenengoan ikasgelak daude eta bigarrenean erabilera anitzeko gelak.

MAÑARIA

Argiztapena goitik behera aldatuko dute Andra Mari kalean

Lau urtetan aurreztuko denagaz obra amortizatu ahal izango dela aurreikusi dute udal ordezkariak

Andra Mari kaleko argiteria publikoa osorik berrituko dute. Endika Jaio alkateak azaldu duenez, proiektuagaz dirua aurrezteko helburua daukate. Jaioren arabera, lau urtetan aurreztuko denagaz obra amortizatu ahal izango dute. Kontsumo baxuko LED argi sistema ipiniko dute kalean zehar. Obrak 79.600 euroko aurrekontua dauka, baina hortik %80 diru-laguntza bidez ordainduko dute. Prozedura irekia erabili dute lanak adjudikatzeko, eta alkateak esan du eskaintzarik onena topatzen saiatu direla.

Andra Mari kalean ez dago farola mota bakarra. Horregatik, obra ere desberdina izango da lekuaren arabera. Farola batzuk duela 30 urtetik instalatuta daude, eta horiek guztiz aldatu beharko dituzte. Beste kasu batzuetan, farola mantendu eta barruko bonbilla aldatuko dute bakarrik.

Obra honegaz, herriko eremu handi baten argiztapena berrituta izango dute. Errepideko argiteria ere udalaren kargu dago, baina ez dakite oraindik LED sistemak trafikorako balioko duen. ■ M.O.



Andra Mari kaleko argiteria aldatzeko lanak egingo dituzte.

OTXANDIO

Elkarbizitza baketsua sustatzeko foro bat eratuko dute

Sektore politikoen arteko "liskar eta ezinikusiak" atzean utzi eta "elkarbizitza baketsuan" oinarritutako kultura politikoa berri bat herrian zabaltzeko helburuagaz, foro bat eratuko du udalak. Foro horretara 1979tik hona herriko ordezkari izan diren hautetsi guztiak gonbidatuko dituzte.

Santi Uribe alkatearen esanetan, "seguruenik hauteskundeen ostean" deituko dute foroa. Foroak bere izaera eta garapena izango dituela azaldu du, eta ahalik eta irekiena izango dela.

Foroaren abiapuntua Andikonako adierazpenean dago, iazko uztailearen 22an, bonbardaketaren 75. urteurrenean, udalbatzarrek onartu zuena. Orduan hainbat konpromiso hartu zituen udalak, eta foroagaz horiei denei forma eman gura diete.

Hiru puntu

Udalak aurtengo uztailearen 22an hartu zuen foroa sortzeko erabakia. Udalbatzarrek onartutako idatziak foroan landu beharreko edukia hiru puntutan laburbiltzen ditu: "1936tik hona Otxandion gertatu denaren inguruko azterketa konpartitua egitea, eskubide guztien errespetuan eta elkarbizitza baketsuan oinarritutako den kultura politikoa berri herriratzea eta gatazka politikoa gaintutako duen eduki demokratikoen inguruan hausnarketak konpartitu eta gizarteratzea". ■ J.D.

ABADIÑO

Baserriaren garrantzia azalduko dute eskoletan

Baserri Eguneko goiza umeei eskainiko zaie eta arratsaldean jaialdia egongo da Traña-Matienan

Alluitz Natura elkarteak Baserri Eguna antolatu du datorren barikurako. Eguna osoko egitarauaren barruan, lehenengo ekintza eskola umeei zuzendua dago. Baserriaren garrantzia azaldu gura diete abadiñar gazteenei. Berbaldiak emateaz gainera, tailer bi eskainiko dizkiete. Gatzatua egiten eta artilea lantzen ere

Berbaldiak emateaz gainera, tailer bi eskainiko dituzte: gatzatua egiten eta artilea lantzen irakatsiko dute

irakatsiko diete. Arratsalderako egitaraua Traña-Matienan dago aurreikusita. Herri kirol eta talo tailerrak eskainiko dituzte. Ardien erakusketa ere ikusgai egongo da. Arratsaldeko 19:00etatik 20:00etara ardiei ilea zelan moztu dieten erakutsiko dute. Ostean, txapeljaurtiketa lehiaketa egingo dute.

Ardi jaiak prestatzen

Datorren astebururako, Abadiñon, Durangon eta Atxondon antolatu duten Ardi Jaiaren egitarauaren barruaren prestatu dute Baserri Eguna.

Eguenean hasiko dituzte Aitte Kurutzeko jaiak

Irailaren 13an ipiniko dute auzotarrek txopoa

Barikua izaten da herritarren parte-hartze handiena eta giro animatua duen eguna Zelaietako Aitte Kurutzeko jaietan. Irailaren 14an, barikuan, ospatuko dute Zelaietan Aitte Kurutzeko edo Pijama Eguna. Goizaldean egingo dute arrakasta handia izaten duen ekitaldietako bat: musikaren erritmoan, bikoteka egiten duten *pataia dantza*.

Eguenean, irailaren 13an, hasiko dira jaiak. Auzotarrek 20:00etan ipiniko dute txopoa Aitte Kurutzeko ermita alboan.

Apirileko feria gaitzat hartuta, mozorro eguna ospatuko dute, bestalde, irailaren 15ean. Trikitixak lagunduta, kalejira egingo dute, 19:00etan. Border Collie txakurren erakustaldia izango da, aldiz, irailaren 16an. ■ I.E.

IZURTZA

Zabor ontziak frontoi osteko aparkalekuan ipiniko dituzte

Amankomunazgoa zabor bilketa zerbitzuaren inguruko azterketa egiten ari da herririk herri. Azterketak helburu bi ditu: zerbitzua hobetzea eta errekurtsioak optimizatzea. Izurtzan, aurreikusita daukate zabor ontzien gune berri bat sortzea, frontoi osteko aparkalekuaren hasieran. Han Amankomunazgoak kudeatzen dituen zerbitzuei dagozkien ontziak ipini gura dituzte: zabor organikoarena eta paperarena. Tamaina handiko gauzak ere jasotzen dituzte. Horiek batera, beira eta plastikoa zerbitzua kudeatzen duten enpresei ere eskatuko diete zabor ontziak ipintzeko. Gune berri hori sortzen bada, Bitañorako sarreran dagoena kenduko dute.

Amankomunazgoak foro bat antolatuko du irailaren 19an, 19:00etan, udalbatzar aretoan. Han Amankomunazgoaren proposamenak azalduko eta herritarren iritzia jasoko dituzte. ■ J. D.



Durungaldean labor

Emakumeen jabekuntzarako ikastaroak prestatu dituzte

2012-2013 ikasturteko jabekuntza ikastaroak prest daude Durangon. Deneriko gaiak lantzeko aukera emango dute Andragunean: emakumeen nortasuna, gizarte eta politikan duten parte-hartzea, kultura berriak, osasuna eta generoa, munduko emakumeenganako elkartasuna... Interesa daukatenek irailaren 18a baino lehen eman beharko dute izena Andragunean bertan.

'Durangoko jaien isla', jaietarako kartela

Julen Bordes durangarrak irabazi du sanfaustoetarako kartel lehiaketa. Santa Ana eta Pinondo ingurua eta artopila dira *Durangoko jaien isla* karteletako protagonistak. Bordesek eman du azalpena: "Santa Anako plaza eta arkua agertzearen ideia, jai bertan sentitzen delako etorri zitzaidan. Artopilaren kontuak jai ospatzeko hainbat ohitura daudela erakusten digu".



Arte eta musika ikastaroak Pinondon

Udazkenean hainbat ikastaro hasiko dira Pinondo Etxean. Marrazkigintza, margogintza, zeramika, enkajea edo bolilloak egiten eta trikitixa, panderoa, alboka edo gitarrajotzen ikasi gura duenak hilaren 10etik 14ra eman dezake izena Pinondon bertan. Postuak zozkatu egingo dituzte.

ELORRIO

Sukalkia, elkartasuna eta musika jaien azken txanpan

Asteleheneko Koadrilen Egunean, 1.500 lagun inguru batu ziren Aldatsekuako bazkari herrikoian

Badoaz hurrengo urtera arte Ferixa Nausikoak Joan dira Gazte Eguna, feria, Koadrilen Eguna... Eguraldia ez da ederrera izan, baina elorriarrak ez dira etxean geratu. Asteleheneko Koadrilen Egunean, esaterako, partaide batzuk tolo eta guzti agertu ziren Aldatsekuako bazkari herrikoira. 1.500 lagun inguru batu ziren guztira. Tortilla txapelketa ere egin zuten eta 45 talde animatu ziren parte hartzera. Arratsaldean, jaitsieraren ostean, jokoak egin zituzten koadrilak.

Baina, jaiak ez dira amaitu oraindik. Ekitaldi asko daude iragarrita astebururako, eta horietako batzuk tradizio handikoak, gainera. Bihar, Sukalki Eguna ospatuko dute, Iturizoro elkarteak eratu. Aldatseku herriro ere elorriarren bilgune bihurtuko da. Bertara mozorrotuta joateko deia egin dute antolatzaileek. Bestalde, domekan Elkartasunaren jaialdia burutuko du Kainabera GKEK. Kulturartekotasuna lantzea izango dute helburu. Horretarako, hainbat kulturatako janari eta ohi-



Euriari aurre egiteko, hainbatek toloak eroan zituzten astelehenean bazkariara.

turak ezagutzeko aukera emango dute plazako frontoian, goizean zehar.

Bebek zaletu gehien

Eguneko ekintzez gainera, gau-txorientzako ere ez da faltako

Bihar Sukalki Eguna ospatuko dute, Iturizoro elkarteak eratu

eskaintzarik asteburuan. Bebe artista espainiarrak kontzertua joko du bihar txosna gunean; zale kopuruari erreparatu gero, jaietako kontzertu handiena izango da. Gaueko 23:30ean irtengo du eszenatokia Bebek. ■ M. Onaindia

200 lagunek parte hartu dute bisita turistikoetan

Bisitari guztiak bizkaitarrak izan dira; ia erdia Durangaldekoak eta hortik gehienak elorriarrak

Udarako lau ibilbide turistiko antolatatu zituen udalak eta, prentsa ohar bidez, bisita horietan 200 lagunek parte hartu dutela azaldu dute. Guztiak izan dira bizkaitarrak; 70 elorriarrak eta Durangaldeko

beste herrietatik etorritakoak hogeitahiago. Ana Otadui alkateak Eloreioren balio arkitektoniko handiko alde zaharra eta monumentuak azpimarratu ditu. "Horregatik, Elorriok daukan aberastasuna ezagutzera eman behar dugu".

Ana Otadui Elorrioren balio arkitektoniko handiko Alde Zaharra eta monumentuak azpimarratu ditu

Basilikarena izan ei da lau ibilbideetako arrakastatsuen. Beste hiru ibilbideak hauek izan dira: Zenita auzoa, jauregiak eta Balendin Berrio-Otxoak gogoko zituen lekuak. ■ M.O.

Gurutze bi konponduko ditu udalak

Udalak 35.000 eurotik gora erabiliko ditu Iguriako eta Santa Anako gurutzeak zaharberritzeko. Ana Otadui alkateak gogoratu du XVI. mendekoak izanda arreta berezia merezi dutela: "Herriarentzako balio handikoak dira eta horregatik zaindu eta babestu behar dira".

Gurutzeetan egingo dituzten lanek hainbat helburu daukate: neurriak berritzea, eraso biologikoak ezabatzea, azaleko zikinkeria kentzea eta eraso berrien aurrean neurriak hartzea. ■ M. O.

tara". Bazkari herrikoian 150 lagun inguru batu ziren frontoian, elkar-tekoek azaldu dutenez. Guztientzako paella egin zuen herritar batek.

Produktu sorta errifan

Jaietan errifa egiteko ohitura daukate. Aurten durangar gazte bati tokatu zitzaion; 1.272 zenbakiak eman zion zortea. Jatekoz, edatekoz eta beste hainbat opariz betetako otzara handia eroan zuen etxera durangarrak.

Bizkaiko Urtxintxa Eskola
Zabalburu 36, bilbo, 48009 BE.30 T: 94 432 04 41 F: 94 433 99 09

www.urtxintxaeskola.org
urtxintxa@urtxintxaeskola.org

2012
2013

Astialdiko Begiralea Durangon

Helburuak

- Uma eta gazteekin lan egiteko gai izango diren hezitzaileak sortzea.
- Astialdiko heziketan, hausnarketa eta marko teoriko baten ezagupenari hasiera ematea.
- Ikasleak edozein ekintza programatzeko eta horien inguruko hausnarketa eta auto-irrikarako prestaketa.

Edukia

- Talde dinamikak, Psikologia evoluzioa, Sexualitatea.
- Inguruzaren azterketa eta programazioa.
- Heziketa astialdian, Begiralea lortzea.
- Zehar letroak: Heziketa eta Kulturartekotasuna.
- Udalekuz eta karguaren ondoren, Naturaren pedagogia.
- Euskal Herrian hezten, Jolasak.

Baldintzak 18 urte beteata izatea, 2012ko abendua baino lehen.

Egutegia: Asteburuetan hilean behin, 2 ikasturte.

Ondutegia:
Asteburuetan: Larunbeteko 10:00etatik, igandeko 17:00ak arte
Larunbetan: 10:00-14:00 eta 16:00-20:00
Igandetan: 10:00-14:00

Iraupena 200 ordu teoriko eta 120 ordu praktikoa

Hizkuntza Euskaraz

Ikastaroaren prezioa: Amankomunazgoa osatzen duten herrietako bizilagunentzat doan: Abadiño, Abando, Beriz, Durango, Egorri, Iurreta, Izurtza, Mañaria, Zaldibai.

Eman izena!

DURANGOKO MERINALDEAREN AMANKOMUNAZGOAN:
Euskara Zerbitzua, Lasbideta 6, Durango.

BFA DFB

GARAI

Herriko jaien balantze ona egin dute antolatzaileek

Bazkari herrikoiak 150 pertsona elkartu zituen

Hilabete pasa da Garaiko jaiak amaitu zirenetik, eta Trumoitte kultur elkarteak antolatzaileek balantze positiboa egin dute. "Santa Ana eta San Inazio astegunak izateko, jende asko etorri zen jai-

Jaietan errifa egiteko ohitura daukate. Aurten durangar bati tokatu zitzaion

BERBAZ >

“Gazteek natura ezagutzea gurako nuke; ezin da maitatu ezagutzen ez dena”

Urte askoan Natur Zientzien museoa zabaltzeko lanean dabil Enrike Huerta; bere azken proiektuari buruz mintzatu da

**Enrike Huerta •**

- Maristetako irakasle ohia
- Hontza museoa zabaldu zuen 80ko hamarkadaren amaieran

bat kontu dauzkat informatizatu barik. Kaxa pilo bat dauzkat biltegian. Leku berrian leku gehiago eta dena antolatzeke aukera edukiko dut.

Gauza asko trukatu egiten dituzu. Japoniar batekin nabil orain trantuan, karramarro bat bidaltzekotan da. Munduko karramarro handiena da. Lortzeko oso gaitza da eta bidaltzeko ere gaitza izango da. Hankarik hankara lau metro neurtu ditzake. Bi eta erdikoa bidaltzen badit ere, ikusgarria izango litzateke aurkeztea. Hari Mediterranioko handiena bidali diot, metro eta berrogei ingurukoa, eta oraindik gauza batzuk bidaltzeko dauzkat. Trukerako geroago eta gauza gutxiago daukat baina hainbat lagun egin ditut mundu honetan.

1980ko hamarkadaren amaieran museoa zabaldu zenuen Mañarian. Zelangoratzenduzu garai hura?

Mugimendu askoko garaiak ziren. Ikastetxeetatik deitzen zidaten, eta ni Maristetan irakasle. Libre nituen orduetan bisitak atontzen nituen, eta asteburuetan bestelako jendea etortzen zen. Hiru urte eta erdian 143 ikastetxe pasatu ziren. Jendea oso pozik zegoen. Itxasoko Museoa deitzen zen hasieran, eta galdezka hasten zitzaizkidan: “Ez daukazu saguzaharrik? Lororik ez daukazu?”. Baneukan, eta apurka-apurka gauza batzuk kentzen eta umeek eskatzen zuten animalientzako lekua egiten hasi nintzen. Horrela zabaldu zen nire bilduma. Ordutik gauza asko lortu ditut, eta hor nabil, erronkak lortzen.

Zein izan da azken erronka? Denbora asko ezin lortuta ibili eta gero uda honetan tiburoi ezpata lortu dut. ■ A.Ugalde.

Hamabi urte gaz hasi zen oskolak eta karakolak batzen, eta hamalau gaz Durangon museo bat zabaltzeko ideia etorri zitzaion. Ahalegin asko egin ditu ordutik. Mañarian, Kirikiñoren etxea izandakoan planifikatu du azken proiektua, urte luzez hainbat udalekin museoaren ideien alde borrokatu eta gero.

Zelan doa Kirikiñoren etxeko proiektua?

Eraikina nire alabak eta suinak erosi dute. Esana zidaten baserri bat erosteko asmoa zeukatela, eta niri museorako lekua utziko zidatela. Ideia hori da; beheko solairua eta lehen pisua izango nituzke museoa atontzeko, baina nik egin behar dut. Orain gauden egoeran dirua lortzea ez da erraza. Mañariko Udalaren

egoera ekonomikoa ez da onena, Foru Aldundikoek esan didate museoentzako ez dutela dirurik. Beste museo batzuk milioiak jasotzen dituzte, baina tira... Eusko Jaurlaritzagaz ere batu nintzen bere garaian. Erakusketa atontzeko %30 inguruko laguntza eman ahalko zidatela esan zidaten. Beheko solairuan zeozer xumea egiten hasi nahi dut, aldi baterako erakusketa txikiak, jendeak dagoena ikusten hasteko behintzat, eta gero instituzioak ea animatzen diren.

Zure ideia beti izan da Durangon museoa zabaltzea.

Durangoko Udalgaz azkenean ezin izan dut ezer lortu, eta beste hainbat udalekin ere hartu emanetan ibili naiz. Hamasei bat eraikinen aukerak egon dira. Uste dut lehenengo eskaintza 1985ean aurkeztu niola Ziarrustari, eta urteak pasa dira!

Urteotan material asko batu duzu. Zelakoa da museoan erakutsiko dena?

Abaniko zabal bat daukat, geologia, palentologia, botanika, ornodunak eta ornobakoak... European dagoen bildumak ikusita dexentetxoa dela uste dut, museo handiak kontuan hartu barik. Europako museo askotan egon naiz, eta hemen erakutsi ahalko litzatekeena ikusgarria da. Tamaina, forma, kolore eta marrazki ugari aurkeztuko lirateke, naturaren kontrasteak ikusteko.

Naturaren dibertsitatea...

Dibertsitatea berba ez zait askorik gustatzen niri. Dibertsitatea hor dago, inork berba hori erabili barik ere. Naturan dagoena aurkeztu gura dut, eta naturan beti egon da dibertsitatea. Gazteek batez ere natura ezagutu dezaten gurako nuke. Museoaren esloganak horrela dio: *Maitatzen ez dena ezin da defendatu eta ezin da maitatu ezagutzen ez dena*. Umetatik natura ezagutu eta baloratzen joanez gero, defendatu egingo dugu, baina ezer ezagutzen ez duen pertsonak ezingo du natura baloratu.

“Trukerako geroago eta gauza gutxiago daukat baina hainbat lagun egin ditut”

Noiz hasi zenuen bilduma?

Orain dela 52 urte hasi nintzen karakol eta oskolen bilduma egiten, hamabi urte gaz. Etxean oso naturazaleak izan dira eta umetatik transmititu izan didate hori. Hamalau urte gaz Donostiako akuariumera birritan edo hirutan joana nintzen, eta ez zegoen besterik. Banekien Miarriritzen ere bazegoela bat... Eta pentsatzen nuen, zergatik ez daude gehiago? Zergatik ez dago Durangon museorik? Orain pentsatuta harrigarria da niretzako, baina hamalau urte gaz gauzak gordetzen hastea erabaki nuen, gerora Durangon museo bat zabaltzeko.

Zenbat espezie batu dituzu?


Azken datuak sartzen egon naiz egunotan eta 45.470 inguru dauzkat fitxatuta. Oraindik hain-

“Erakusketa txikiak egiten hasi gura dut jendeak dagoena ikusten hasteko. Gero instituzioak ea animatzen diren”

@anbotokultura

KULTURA[>]

KARLOS MARTINEZ ETA ANDER LAUZIRIKA > ARTISTAK



“Askotan hartu dugu parte, baina lehenengo aldiz aukeratu gaituzte”

Ertibil erakusketarako aukeratu dituzte Ander Lauzirika iurretarraren eta Karlos Martinezen durangarraren lanak

Karlos Martinezek eskultura lan bat da aurkeztu zuen lehiara.

Karlos Martinez: Bai. Beste lehiaketa batzuetara aurkeztuak neuzkan beste eskultura batzuk, eta libre neukalako bidali nuen hau Ertibilera. Oso tamaina aproposa zeukala iruditu zitzaidalako aukeratu nuen: pieza monumentala da. Altxairuzko pieza bat da, trapezio forma daukana eta oihale batek estaltzen duena.

Zer ideiaz egindakoa da?

K.M.: Azken aldian lantzen nabilen ideiare heldu diot: espazioaren

Karlos Martinez:
“Aukeratu ez izateak ez du esan nahi lana txarto dagoenik”

Ander Lauzirika:
“Oso ondo dago lanak Bizkaiko herrietako erakusketetan ipintzea”

antropologian du oinarria lanak. Eraikitzen eta deseraikitzen denaren inguruan egin dut gogoeta, eta politikak arkitekturan zelan eragiten duen ere izan dut gogoan lana burutzerakoan.

Zelan landu zenuen?

K.M.: Metala lantzen duen lurretako tailer batean egin nuen lan. Horrela ohartu nintzen gremioekin kolaboratzea ere asko gustatzen zitzaidalako. Oso aberasgarria izan da eurekin lan egitea: nire ikuspuntua eta euren teknika uztartzea oso interesantea da.

Bestalde, bideo sorkuntza lan bat Ertibil lako lehiaketa batera aurkezte arriskatu da?

Ander Lauzirika: Aurrerapausu bat izan da lan hau niretzat, baina ez ausarta izan delako, hain justu, zerbait ‘komertzialagoa’, ‘uler-garriagoa’, izan delako, baizik. Orainarte gauza pertsonalagoak aurkeztu izan ditut lehiaketetara, baina egindakoagaz oso asetuta geratu arren ez dut saririk jaso. Horixe gertatu zitzaidan iaz.

K.M.: Askok bidali dituzte bideoak lehiaketara aurten, eta saria jasotzek balio berezia du horregatik.

Zer kontatzen du bideoak?

K.M.: Dokumental txiki bat bezalakoa da. Bilboko Abusu auzoko ikastolako ikasleekin antzerkigile batek eta dantzari batek egin zuten egoitza lana dokumentatu dut.

Ohituta zaudete Bizkaiko Aldundiak antolatzen duen hau bezalako lehiaketetan parte hartzen?

A.L.: Bai, askotan hartu dugu parte Ertibilen, baina lehenengo aldiz aukeratu gaituzte.

K.M.: Hau bezalako lehiaketetan parte hartuta ikasi dugu aukeratu ez izateak ez duela esan nahi lana txarto egiten zabilzanik. Batzuetan kontrakoa da.

Zer esangura dauka zuentzat aukeratuak izateak?

K.M.: Egia da oso betegarria dela ehun lagunaren artelanaren artetik zurea hautatzea...

A.L.: Eta oso ondo dago, baita ere, lanak Bizkaiko herrietako erakusketetan ipintzea. ■ I.E.

Irudi bihurtutako esperientziak, altzairu eta oihalezko gogoetak

Irailaren 18tik 20ra ipiniko dute Ertibil erakusketa Zornotzako Zelaieta zentroan



Ertibil lehiaketara aurkeztu duen eskultura-lana burutu zuenean, Bilbon zeukan Karlos Martinez durangarrak estudioa. Bilbotik *bil*, eta Durangotik *du* silabak hartuta, *Bildu* izena ipini zion piezari. Errege Kopako finala jokatu behar zuen sasoi hartan Athletic futbol taldeak. Aldi berean, greba orokorrerako deialdia egiten zebiltzan sindikatuak. “Kromatismo zuri-beltz-gorri berezi bat sortu zen Bilbon”, eta eskulturarako ideia ekarri zion horrek denak: futbol talde baten inguruan edo sindikatuen bitartez gizartea zelan batzen den eta horri lotuta zelan behin-behineko estandarte eta espazioak sortzen diren islatu gura du.

Ertibil lehiaketaren azken hiru edizioetan aurkeztu ditu Martinezek bere lanak.

Ander Lauzirika iurretarrak ere, Bizkaiko Foru Aldundiaren

arte sorkuntzarako lehiaketaren azken urteetako deialdietara aurkeztu izan ditu bere lanak. 2012ko edizioan aurkeztu duen bideoa Interneten ikusi daiteke: www.youtube.com/watch?v=MH_OmmeYOM.

Karlos Martinezen eskultura, Ander Lauzirikaren bideoa eta beste hamazortzi artista gazteren lanak egongo dira Ertibil erakusketan. Bizkaiko hamar lekutan erakutsiko dituzte. Irailaren 18tik 30era Zornotzako Zelaieta Zentroan egongo da ikusgai.

Beste bideo sorkuntza lan bat editatzen hastekoa da Ander Lauzirika, kontaktu duenez. Bilboko Muelle 3 aretoko lagun batzuen enkargua.

Aukeratu duten beste lehiaketa batzuetarako lanean dabil Karlos Martinez. Madrilen eta Bartzelonan erakutsiko du, esaterako, bere sorkuntza. ■ I.E.

MUSIKA >

Durangaldeko musikariek berotuko dute gaua Elorrion

Gaur, 23:00etan, Elorrioko Gaztetxean joko dute Ghertzainak eta The Mocker's taldeek

Durangon sorturiko taldea da The Mocker's hirukote gaztea. Hertzainak taldearen bertsioak eskaintzen ditu Ghertzainak taldeak. Biak ariko dira, gaur, 23:00etan, Elorrioko Gaztetxean.

Uda jairik jai kontzertuak eskaintzen eman dute The Mocker's taldeko musikariek. Iazko udan grabatu zuten diskoko kan-

tak eskainiko dituzte, besteak beste, gaur gaueko zuzenekoan.

Bestalde, Ghertzainak boskotea urte beterako iraupena izan-

Hertzainak taldearen bertsioak eskaintzen ditu Ghertzainak taldeak

go zuen proiektua izango zela esan zuten 2012 urte hasieran. Durangaldeko musikariak batzen dituzte berriak: Ghetto taldeko lau musikariek eta bateria-jotzaile berri batek sortu zuten taldea.

Platerueneko Greatest Hits Gauan jo zuten lehenengoz, eta eskualdeko hainbat herritako jaientan jo dituzte Hertzainak taldearen bertsioak uda honetan. ■ I.E.



Rock and roll doinuak eskainiko ditu Durangoko The Mocker's taldeak Elorrion. Iban Gorriti

JAIALDIA >

Senegalgo janak eta dantzak beteko dute Plateruena

Bigarren urtea da Plateruenean senegaldarren jai antolatu dutena. Durangaldeko herritar guztiak gonbidatu dituzte JAPPO elkarteak lagunek irailaren 8ko jaiarekin gozatzera

Senegalgo kultura –musika, dantza eta janaria– dastatu eta gozatu gura duten guztientzat, jaialdia antolatu du JAPPO senegaldarren elkarteak, irailaren 8ko.

Elkartekideak, euren jaioterriko hizkuntza eta kultura konpar-

Diru arazoak dauzka elkarteak, eta lokala itxi egin behar izan zuten

titzeko batzen ziren, Durangoko Anboto kaleko JAPPO elkartearen egoitzan. Baina, diru arazoak dauzka elkarteak, eta lokala itxi egin behar izan zuten joan zen hilean. Elkarteak lehendakariak azaldu duenez, gainera, zailtasun handie-

nak dauzkaten uanean, Durangoko Udalak aurten diru laguntzarik ez ematea erabaki du.

Baina, zapatuan, Senegalgo doinuak dantzatzeko batuko dira, eta bost euroko sarreragaz elkartearen biziraupena ziurtatzeko dirua batu gura dute: "Elkarteak beharizan larria daukaten kideak laguntzen jarraitu ahal izateko".

Duela hiru urte abiatu zuten *Frantses berbalaguna* proiektuagaz jarraitzen dute, bestalde, elkarteak kideek. Irailaren 14tik aurrera, berriro hasiko dira frantsesez berba egin gura duten durangarrek batzen, astero-astero ipiniko duten hitzorduetan.

Sarreragaz elkartearen biziraupena ziurtatzeko dirua batu gura dute

Duela hiru urte sortu zuten JAPPO elkarteak, Senegalgo etorkinak elkartzeko esparru bat sortzeko, eta baita euskaldunekin euren kultura konpartitzeko helburuz ere. Durangora heltzen diren herrikideak laguntzen dituzte hainbat bizitzako hainbat arlotan, eta diotenez, jakitun dira euren kultura mantentzeko bertokoei ere erakutsi behar dietela. ■ I.E.



Elkarteak Landako erakustazokan egin zuten jai bateko irudia.

GEURE DURANGALDEA

Jose Julian Bakedano
Zinegilea



VOLTAIRE

Francois Marie Arouet-en goitizena da (1694-1778). Idazle paristarra, historialari, filosofo eta abokatua, ilustrazioaren ordezkari nagusienetakoa, sasoi bat non arrazoia, zientzia eta errespetua nabarmendu zituzten. 1718an *Edipo* tragedia eta 1723an *La Henriade* epopeia oso arrakastatsua izan ziren. Beti izan zituen arazoak justiziarekin eta bi bider espetxeratu zuten. 1734an publikatu zituen *Lettres philosophiques* (Filosofia-eskutitzak), arrazionalismoaren maisu-lana. *Zaire* tragediaren arrakastaren ostean (1734) sei liburu argitaratu zituen gero eta arrakasta txikiagoagaz, garrantzitsuena *Mahoma ou le fanatisme* (Mahoma edo fanatismoa) (1741), debekatu egin zutena. Oso garrantzitsuak dira bere ipuinak, umorez eta didaktismoz josiak. Alemanian bizi ostean bota egin zuten eta Genevan hartu zuten babeslekua. Genevarrak asaldatu egin zituen antzerkiarekiko bere zaletasunak eta Server-i eskainitako kapituluak bere *Essai sur les moeurs* (Ohi-turei buruzko saiakera) (1756). Joana Arc-ekoari eta dontzeilari buruzko poemak, eta Entziklopedian parte hartu izanak katolikoen alderdiarekin talka egin zuten. *Candide ou l'optimisme* (Kandido edo baikortasuna) eleberriz zoragarria (1759) berehala kondenuatu zuten elizkoien, nobleen, erregeen eta militarren aurkako satiragatik. Ferney-ren jabetzapean bizitzen egon zen hamazortzi urtez, Europako herrialdeetako elitearen bisita jaso zuten, gutun asko jaso eta idatzi zituen eta idatzi polemikoak bikoiztu zituen fanatismo klerikalaren aurka. 1764an idatzi zuten bere maisu-lana, *Dictionnaire philosophique* (Filosofia hiztegia). 1778an Parisera itzuli zen, non miresmenez hartu zuten, eta urte horretan bertan hil zen, 83 urterekin.

Euskal herritarrei buruz, Voltairek hau dio: "Euskaldunak, Pirinioen magalean kantatzen eta dantzatzen duen herria". Bariazio bat da, bere *La Princesse de Babylone* (Babiloniako Printzesa) ipuinean agertzen den testuarena.

Erredakzioan itzulia

MUSIKA > JAIALDIA

Klasikoen bertsioak jotzera ausartzen diren musikariak jaialdira deitu dituzte

Durangoko San Fausto jaietan Bertsioen Gauda jaialdia egingo dute eta herriko taldeak parte hartzera animatu dituzte



Peio Agirre

Plateruenean egiten duten Greatest Hits jaialdiaren antolatzaileen eskutik, Bertsioen Gauda egingo dute Durangoko San Fausto jaiei barruan. Durangoko Andra Mariko elizpean izango da jaialdia, urriaren 20an, eta parte hartu gura duten taldeek izena emateko deialdia zabaldu dute antolatzaileek.

Andra Mariko elizpean izango da jaialdia, urriaren 20an

Durangarrek izango dute jaialdian parte hartzeko lehentasuna

Durangarrek izango dute jaialdian parte hartzeko lehentasuna: taldeko partaideak Durangokoak dituzten taldeek. Jai batzordeak erabakiko du gero izena ematen dutenetatik zeintzuek joko duten. Hiru ordu iraungo ditu jaialdiak: parte-hartzaile bakoitzak 30 eta 45 minutu arteko emanaldia eskainiko du.

Izena emateko, telefonoz 659 222 255 zenbakira deituta, edo e-posta bidez hona idatzita: aloka@lakuntza.com. ■ I.E.

LITERATURA >

Hileko lehen eguaztenean batzen dira Durangoko liburutegiko irakurle txokoetan. Euskaraz idatziriko lanen inguruan jarduteko, taldean batzen dira, 19:30ean; eta gazteleraz, 18:00etan.

Lehenengo hiru-hilabeteetarako egitaraua eman dute dagoneko jakitera: *La sociedad literaria y el pastel de patata de Guernese*, *Aya de Yopougon* eta *Vredaman* landuko dituzte gaztelerazko taldean.

Azken urteetan talde bakoitzean dozena bat lagun inguru aritu dira

Euskarazko taldean, aldiz, Harkaitz Canoren *Twist*, Coetzee-

ren *Lotsakizuna*, eta Leire Bilbaoen *Scanner* aztertuko dituzte urrian, azaroan, eta abenduan, hurrenez hurren.

Isa Castillo literatur kritikariak gidatzen ditu Irakurleen Txokoa-ren saioak, eta berak proposaturiko liburuak irakurtzen dituzte. Liburutegiko hitzorduetan komentatzen dituzte gero.

Talde irekia

Irakurle Txokoa talde irekia dela diote antolatzaileek. Gura duenak Durangoko liburutegira bertarata eman dezake izena.

Azken urteetan talde bakoitzean dozena bat lagun inguru aritu dira. Azaldu dutenez, emakumezkoak izan dira orain arte parte hartu duten gehienak. Urri-tik aurrera berrartuko dute hilean behingo hitzordua. ■ I.E.

Urrian abiatuko dute Durangoko liburutegiko Irakurle Txokoa berriro

Aukeratu dituzte urte amaierara arteko hiru saioetan landuko dituzten literatura lanak



PLATERUENA Durangoko Kafe Antzokia

www.plateruena.net

★

IRAILAK 8 22:00etan
SENEGAL JAIA
ANTOLATZAILEA: JAPOO ELKARTEA
JAIA. Sarrera: 5 euro.

IRAILAK 14 22:00etan
ERNESTO SEVILLA
BAKARRIZKETA. Sarrera: 12-14 euro.

IRAILAK 15 22:00etan
**THE GREG'S MURDERS +
THE MOCKERS + KROME**
LOKALETIK AT. Sarrera doan.

Eguneko menua astelehenetik larunbatera
Landako etorbidea, 4a 48200 Durango Tel.: 946 030 300

**KANPOALDEA
TOKI BAT DA**
Arena en los bolsillos teatro
(1-4 urte bitartekoentzat)
Irailak 23 • 12:00/17:30

CRIMEN PERFECTO
Txalo Producciones
Irailak 30 • 19:00

San Agustin
KULTUR
GUNEA
DURANGOKO UDALA

Hitz
liburu-denda

artekalea 14,
durango (bizkaia)
info@hitzliburudenda.com
946 810 776

IRITZIA >

gutunak@anboto.org

Gutunak @

Banketxeentzako dirua, guretzako miseria, aski da! Irailak 26 Greba Orokorra!

Berriz ere, Estatuaren erreforma estruktural eta basatia dugu aurrez aurre. Estrukturala, ez direlako neurri koiunturalak, ezta fase ekonomiko batean soilik aplikatzeko neurriak ere. Estatuaren eredia eraldatzeko erreformak dira.

Estatuaren rola bera eraldatzen dute; izan ere, aurrerantzean bere zeregin bakarra izango da ekimen pribatuari laguntzea eta kontrol soziala bermatzea. Horretarako:

- Sektore publikoa suntsitzen ari dira, beraren egin-kizun guztietan (arautzailea, motor ekonomikoa, zerbitzuen prestazioa eta babes soziala). Horretarako, sektore publikoko langileen lan baldintzei eta negoziatio kolektiborako eskubideari erasotzen diete.

- Hartzen diren neurriek lehengo helburu berbera dute, hots, gutxi batzuek ondasunak metatzen eta gehiengo sozialaren kontura espekulatzen jarraitu dezatela: BEZa igotzea, amnistia fiskal baten ostean.

- Lan erreformek enplegua suntsitzen laguntzen duten bitartean, langabeen kolektiboa iruzurraren susmopean jartzen dute, beren prestazioen murrizketa justifikatzeko.

- Mendetasun egoeran dauden pertsonen eskubideak murrizten dira, eta horrek badu eragin berezia emakumeen kolektiboarengan, zeren eta horrekin zerikusia duten zereginak beraren bizkar geratzen baitira.

- Esparru juridiko-politikoaren eraldaketa inposatzen dute dekretuz, erabat zentralizatuta eta uniformizatuta dagoen eredu bat ezartzeko. Bukatutzat ematen dute Autonomien Estatua, edozein politika propio aplikatzeko bidea erabat itxiz.

Kontua da eredu kapitalista basatiena inposatzea. "Ahal duena salbatu dadila", Estatuak ez duelako ez erregulatzen eta ezta babesten ere. Krisi hau ekarri duten politika neoliberaletatik oraingo egoera (langabezia, bazterketa soziala eta pobrezia) betiketuko duten politika ultraneoliberaletara pasatu gara.

Erreforma hauekin ezinezkoa da hazkundea; aitzitik, enplegua suntsitzeko eta gizarte osoaren bizi-baldintzak okerragotzeko fase berri bat iragartzen dute. Izan ere, soldatak eta prestazioak murrizten dira prezioak igotzen diren bitartean, eta ez da bermatzen oinarriko zerbitzuak eskuratzeko bidea; beraz, hori pobrezia sinonimoa da. Horixe da, besterik ez.

Aldaketa da euskal herritarrok behar duguna, aldaketa ekonomiko eta sozial orokor eta erreala, gure egungo politikez eta etorkizunaz libreki eraba-

kitzeko eskubidea aitortu behar zaigu; gure politika sozial eta laboral propioak arautzeko eskubidea, langabeziarekin bukatzeko neurri errealek hartzeko eskubidea, zerbitzu sozialen defentsa integrala egiteko eskubidea... Hau da, burujabetza politikoa eta ekonomikoa behar dugu!

Irailaren 26an denok kalera!

Denok grebara!

Durangaldeako LAB

Klik batean @

**Etxea jausteko, erreka alboan**

Durangar batek Alde Zaharreko argazki hau bidali du Anboto astekarian argitaratzeko eskatuz. Antza denez, Andra Mari kaleko zubitik pasatzerakoan, argazkian ageri den etxera begira gelditzen dira hainbat eta hainbat herritar, etxea jausiko ote den beldur.

Sei hankako mahaia

Idoia
Agorria
PSE-EE

**Atzerapausorik ez**

Krisian murgilduta gaude, baina hori ez da gizarte-arloko politiken ondorioa. Hala ere, PP alderdiaren gobernua, bere politika ekonomikoa eraginkorra ez dela ikusita, berriz erabaki du denik eta politika ideologikorik kontserbadoreena ezartzea, eta, hortaz, emakumeen eskubideak murriztea. Eskubide horiek galduz gero, emakumeen osasuna eta bizitza arriskuan egongo lirake. Gainera, Europako eta nazioarteko araei jarraiki, estatuak ezinbestez eman behar ditu babes eta segurtasun juridikoa sexu- eta ugalketa-arloko eskubideen esparruan. Fetuak gaixotasun larriren bat edo malformazioen bat izanez gero, gure gorputzari buruz erabakiak hartzeko dugun eskubidea kendu nahi digute. Gaixotasun larri horien ondorioz, haur jaioberriek ez dute inkubagailutik edo ospitaleko oheetatik irteko aukerarik izango, ezin izango dute bizitza gozatu, eta ezin izango dira behar bezala bizi, ez haiek ez haien senideak. Atzerri joateko 'dirua' duten emakumeek baizik ez dute erabakitze askatasuna izango. Frankismoan bezala.

Durangoko alderdi sozialistakook proposamen bat egin dugu, mozio bidez, Udalak bat egin dezan Sexu eta Ugalketako Eskubideen aldeko Estatuko Plataformaekin, eta, era berean, Estatu osoko 140 emakume-erakunde baino gehiagok sinatutako *Decidir nos hace libres* izeneko adierazpenarekin (Erabakitzeko aske bihurtzen gaitu): *nosotras decidimos.org/manifiesto*. PP alderdiak baizik ez du mozioaren aurkako botoa eman.

Gure ustez, emakumeen eskubideak babestea giza eskubideak babestea ere bada; eta, beraz, ezinbestekoa iruditzen zaigu atzerapauso bat ere ez egitea sexu- eta ugalketa-arloko eskubideen esparruan. Hala, bat eginen dugu emakumeen eta gizarteko erakundeek eta osasun-arloko profesionalak adierazi duten kezkekin eta sumindurarekin, PPren gobernua egindako iragarpenak murriztu egiten duelako emakumeek amatasunari buruz erabakitze duten autonomia.

Laguntzaileak:



anboto
komunikabideak

Bixente Kapanaga, 9
48215-Iurreta
(Bizkaia)
Tel.: 94 681 65 58
Erredakzioa:
94 623 25 23
Publizitatea:
94 621 79 02
publi@anboto.org

2012ko irailaren 7a
10. urtea - 470 zk.

Zuzendaria:

Jone Guenetxea.
Erredakzio burua:
Joseba Derteano.
Administrazio burua: Itziar Belar.
Administrazioa: Miren Abasolo.
Publizitatea: Goretzi Alonso,
Amaia Huarte, Itxaso Altuna,
Maialen Balanzategi.
Erredakzioa: Aitziber Basauri,
Itsaso Esteban, Markel Onaindia,
Amaia Ugalde.
Maketazioa:
Ainhoa Arizmendiarieta.
Zuzentzailea: Ekaitz Goienetxea.
Argazkilariak: Kepa Aginako,
Zaldua Fuertes.

Lege gordailua: BI-2268/01 ISSN: 1578-7028 Tirada: 10.150 ale

**OPORRETARAKO
ETA ASTEBURUETARAKO
ESKAINZA EZIN HOBE
BATEKIN AMETS
EGITEN DUZU ?**

**hemen
duzu !!**

Astebeteko oporrak hondartzan
hurrekin, asteburu erromantiko
bat, itsaski-jana...
Mundu guztiak du ametsen bat,
zein da zurea?



COSTA DORADA

LES OLIVERES HOTEL ***
Irailan eta urrian. **Beraien artean
metagarriak diren 3 eskaintza
ezin hobe:**

- Mantenu osoa mantenu-erdiaren ordez
- Otorduetan ura eta ardoa barne
- 7 egun 6ren prezioan

Goza ezazu Ebroren Deltako natur
Parkearen xarmaz. Hotela hondartzatik
200 metrora dago eta Port Adventuratik
20 minutura baino ez.



ASTURIAS

LLANES. VILLA DE LLANES HOTELA***
Irailan eta urrian. 3 egun-
2 gau. Gosariak barne.

90€

**ESKAINZA!! ITSASKI JANA
ASTEBURUA**
Barne daude: 2 gau OG
erregimenean (ostirala eta
larunbata) + Itsaski-jana



KANTABRIA

**QUIJAS. POSADA LA VENTA
DE QUIJAS *****

Irailan, urrian eta
azaroan. 4 egun-3 gau.
Gosariak barne.

100€

**ESKAINZA!! 3 gau
2ren prezioan**



Oinarritako prezioak pertsonako
logela bikoitzean. Kontsultatu
daiek eta antolatzaileen gainerako
baldintzak. Kudeaketa-gastuak 0€.
Plaza kopuru mugatua: ENK 618.



EROSKI bidaiak

Ametsetan? Egizu legan!



www.viajeseroski.es



AISIALDIA >

auzorik auzo



Santa Marina ermita.



Aginibarren omenezko oroitarria Santa Marina ermitan.



Garitaonandia dorretxea eta jauregiatxea.

Goierri auzoan, dorretxe, jauregiatxe, ermita eta baserri historikoen artean

Zaldibarko Goierri auzoan balio historiko handiko eraikinak aurkitu ahal dira, Donejakue Bidean kokatuta dagoen Santa Marina ermitatik hasi eta Garitaonandia izeneko dorretxeraino

Tomas Garitaonandia *Aginibar* (1869-1940) Zaldibarko bertsolari eta bertsozalea, Goierri auzoko Arriondo baserrian bizi izan zen. Bere bertso zaletasuna Goierriko baserriak ezagutara emateko baliatu eta auzoko ia baserri denei buruzko bertsoak sortu zituen, ostean herrigunean eta lagunartean abesten zituenak. Auzoa ezagutzeko jakingura duen bisitariak zutik aurkituko ditu bertso haietako baserriak gaur egun ere.

Goierriko auzotarrek 1978an *Aginibar* bertsolariari eskainitako oroigarri bat Santa Marina ermitan dago. Santa Marina Areitio gainera heldu (harrizko zubia azpitik pasatuta) eta eskumatara hartu ondoren, handik metro gutxira dagoen zuhaitziaren gerizpean dago. Egunpasa joateko prestatuta dago, egurrezko mahai eta aulkiekin. Probaleku bat ere badu, eta harri astunak ere bai alboan.

Ermita Donejakue Bideko kostaldeko ibilbidean kokatuta dago, Zaldibarko San Martin eta Santiago ermitekin batera. Jatorrizko ermita Ganguren mendi tontorrean zegoen eta berau eroritzenean santuaren irudia Gazagako Santiago basilizan gorde zuten. Gaurko Santa Marina ermita 1615ean bedeinkatu eta santuaren irudia prozesioan eraman zuten ermita batetik bestera.

Goierri auzoko beste altxorretako bat Garitaonandia dorretxea eta jauregiatxea dira. Zaldibarko industriguneko atzealdean dagoen bidexka batetik joanda heltzen da eraikin historiko horretara. Jaurlaritzaren Euskal Kultur Ondarearen Zentroak onura arkitektonikoko kultur ondasunen katalogoan dauka zerrendatuta. Dorretxea XVII. mende hasierakoa da eta jauregiatxea XIX. mendekoa. Orain dorretxea dagoen tokian, horren aurretik, baserri bat zegoen bertan, XVI. mendekoa. Balendin Lasuenen *Herri-*

ko Kondaira Koadernuak bildumako 26. alean jasotzen dira xehetasun guztiak.

Dorretxearen ateburuan armari bat dago eta, han jasotzen denez, Pedro Onaindiak eta Madalena Zurikarai gizon-andreek sortu zuten dorretxea 1612. urtean. Jauregiatxea dorretxeari erantsita dago eta 1900 eta 1929an berriztu zuten. Fatxada nagusiaren atariko arkuaren gainean armari multzo bat dago, hareharrizko hiru zatik osatua. Lasuenekidatzizuenetz, "edertasun handiko multzoa da, eta aldi berean oso originala".



Ermita egunpasa joateko prestatuta dago, egurrezko mahai eta aulkiekin

Dorretxea XVII. mendekoa da eta Jauregiatxea XIX. mendekoa

Orain dorretxea dagoen tokian baserri bat zegoen bertan, XVI. mendekoa

@anbotokirola

KIROLAK >

Durangaldeko ziklistak Espainiako Itzuliko azken kilometroetan daude

Jonathan Castroviejo eta Egoitz Garcia lehenengoz ari dira Espainiako Itzuliko lehia



Jonathan Castroviejo; Espainiako Itzuliko liderra izan da.



Egoitz Garcia; lehenengoz ari da itzuli handi bat lehiatzen.



Ruben Perez; bigarren amaitu du mendiko etapa batean.



Koldo Fernandez de Larrea; Garmin Sharp taldean dabil.

DATUAK

JONATHAN CASTROVIEJO

- **Jaioterria:** Getxoztarra da, baina Abadiñon bizi da 2010az geroztik.
- **Adina:** 25 urte.
- **Ibilbidea:** Orbea eta Euskaltel-Euskadi taldeetan aritu da. Aurten du lehen urtea Movistar taldeagaz.

EGOITZ GARCIA

- **Jaioterria:** Atxondo.
- **Adina:** 26 urte.
- **Ibilbidea:** Caja Rural taldean ibili da. Gaur egun, Cofidis taldean dabil.

RUBEN PEREZ

- **Jaioterria:** Zaldibar.
- **Adina:** 30 urte.
- **Ibilbidea:** Orbea taldean hasi zen. 2005etik hona Euskaltel-Euskadigaz dabil.

KOLDO FERNANDEZ DE LARREA

- **Jaioterria:** Gasteiztarra da, baina Abadiñon bizi da azken bost urteetan.
- **Adina:** 30 urte.
- **Ibilbidea:** Zazpi urtez Euskaltel-Euskadin egon ostean, aurten lehen urtea du Garmin Sharp taldean.

daiteke ezer esan. Gu baino indartsuago izan direnak zoriontzea eta aurrerantzean ere saiatzen jarraitzea besterik ez zaigu geratzen". Kritikoagoa da bere aurtengo errendimenduagaz: "Niretzako ez da uterrik onena izan. Postu on batzuk lortu ditut, baina gorputzak ez dit erantzun uste nuen moduan. Ea hurrengo denboraldia hobea den".

Koldo Fernandez de Larrea Euskaltel-Euskadi taldean ibili zen iaz arte. Aurten du lehen urtea Garmin Sharp taldeagaz. Helburu bigaz ekin zion itzulari: esprintetan lehiatzea eta Andrew Talansky taldekidea laguntzea. Esprintetan espero baino ahulago ibili dela dio: "Gutxienez lehenengo bosten artean sailkatzea nahi nuen, baina ez dut lortu". Bigarren zereginetan finago aritu da. Talansky 23 urteko gaztea zazpigarren dago sailkapenean eta taldeak lan handia egin du. ■ J. D.

Durangaldeak lau ordezkari ditu Espainiako Itzulian: Egoitz Garcia atxondarra, Ruben Perez zaldibartarra eta Abadiñon bizi diren Jonathan Castroviejo eta Koldo Fernandez de Larrea. Castroviejo itzuliko protagonista nagusi izan zen lehen etapetan. Perezek ezin izan zuen Lagos de Cobadongako ahalegin itzela garaipenagaz errematatu. Garciari inork ez dio kenduko lehen itzuli handia lehiatzeak dakarren ilusioa. Fernandez de Larrea, espero baino eskasago ibili da esprintetan orain arte.

eman zidan. Egia esanda, gerora jabetu naiz egun horiek zer bereziak izan ziren, dena distantzia apur batekin ikusi dudanean. Egun horietan, hedabideak zirela, hurrengo eguneko etaparen prestakuntza zela, itzulian bertan kontzentratu egon nintzen". Harrez gero, Alejandro Valverde taldekideari laguntzera bideratu ditu ahaleginak. Zereginak garbi ditu: "Orain arte lortu dugunari eustea da gure helburua. Taldekako sailkapenean lider gaude eta horri eutsi nahi diogu. Valverderen bigarren postua ere indar denekin defendituko dugu".

Egoitz Garciak bere ibilbideko lehenengo itzuli handia du Espainiako. Castroviejok ez bezala, taldekako erlojupekoak ez dakarkio gomuta onik. Erori eta urratu mingarriak egin zituen. Ondorioz, hurrengo egunetan kosta egin zitzaion gauean lo egitea eta ezin izan zuen masajerik ere hartu, azaldu duenez: "Nire helburua eta taldeare-

Fernandez de Larrea espero baino eskasago ibili da esprintetan

na ihesaldiak hartu eta etapa garaipena bilatzea zen. Erorikoren ondorioz, gauzak lasai hartzea beste erremediorik ez nuen izan. Etapak joan ahala erreperatu egin nintzen eta ihesaldietan sartzen saiatu naiz, baina zorte barik". Hala ere, handik eta hemendik gorde dituen indar

apurrekin, geratzen diren etapetan gogoz saiatzeko asmoa duela adierazi du.

Ruben Perezek hurbil eduki zuen garaipena Lagos de Covadonga mendate mitikoan amaitu zen etapa, baina bigarren postuagaz konformatu behar izan zuen, Antonio Piedraren atzetik. Igor Anton taldeburua espero zen mailatik behera dabil eta taldeak oraindik ez du etaparik irabazi, baina taldea duen guztia ematen dabilela dio: "Taldearen jarrera bikaina da. Askotan saiatu gara eta alde horretatik ezin

Castroviejo itzuliko protagonista nagusia izan zen lehen etapetan

Jonathan Castroviejok ametsetako debuta izan du itzuli handietan. Estreinako etapa, taldekako erlojupekoa, bere taldeak (Movistar) irabazi zuen eta helmugara lehenengo tokian sartu zenez, liderrari dagokion maillota jantzi zuen. Hurrengo egun bietan maillotari eutsi zion eta Barakaldotik abiatutako laugarren etapen egun berezia bizi izan zuela onartu du: "Etxean maillotagaz irteak poz handia

Garciak bere ibilbideko lehenengo itzuli handia du Espainiako



Jonathan Castroviejo taldekideekin podiumean taldekako erlojupekoa irabazi ostean.

Atleta gazteen Espainiako txapelketa, Arripausuetan

2013ko ekainean Durangok hartuko du gazte mailako atletismo txapelketa; Bizkaian jokatzeko den lehenengo biderra izango da



Aitor Casal, Aitziber Irigoras eta Oskar Zarrabeitia, atzo, Durangoko udaletxean.

Datorren urtean, ekainaren 22tik 23ra, Durangoko Arripausuetan jokatuko dute gazteen mailako Espainiako atletismo txapelketa. Bizkaian, Durango izango da lehenengo herria maila horretako txapelketa hartzen.

Orotara 900 atleta batuko dira Durangon. Euren laguntzaileak, txapelketako epaileak eta bestelako ordezkariak batuta, Durangaldetik kanpoko 2.500 bat lagun batuko ditu guztira. Atzoko prentsaurrekoan, txapelketak herriko ostalaritzari eta komertzioei ekarriko dien onura azpimarratu zuen Aitor Casal Bidezabaleko presidentek. Horregaz batera Durangoko

Udalari, Amankomunazgoari eta herritarrei euren laguntza eskertzeko modua ere badela adierazi zuen: "Udaletik diru-laguntza jasotzen dugu eta Amankomunazgotik azpiegiturak. Guk ere zerbait eman nahi genion herriari, urteetan eman digutena bueltatu nahi genien".

Durangoko txapelketatik irtengo da, hilabete geroago, uztailan, Ukrainiako munduko txapelketera joango diren atleten zerrenda. Saillkapen hori lortzeko borrokan ibiliko dira Bidezabaleko Leire Gorritxategi eta Irene Perez, besteak beste.

Arripausuetan hainbat eraberritze lan egingo dituzte dato-

ren urtera bitartean. Dagoeneko pertika eta mailu jaurtiketak praktikatzeko material berria erosi dute eta, bigarren fasean, azpiegiturak irisgarritasun neurrietara egokituko dituzte.

Morenok, marka berria

Orain asteburu bi Iruñean jokatutako Espainiako txapelketan Bidezabaleko Arantza Moreno ermuarrak beste erakustaldi bat eskaini zuen xabalina jautiketan. Gazteen mailan aurretik ere berea zen errekorra hobetu zuen (49,90metro) eta nagusien mailan zilarrezko domina jantzi zuen. Belit Solarrek brontzea eskuratu zuen korrika. ■ J. D.

Euskal Herria torneoaren irabazi du Ramirezek

Durangarrak torneo erregularra osatu du

Alain Ramirez hamazazpi urteko txirrundulari durangarrak Euskal Herria torneoaren irabazi du gazteen mailan. Hiru lasterketek osatzen zuten txapelketan bera izan da erregularrena. Ramirezek (Beste Alde-Rent a Car-Orue Eskola taldea) ez du lasterketarik irabazi, baina

denetan aurrean ibili da eta puntu asko batu du. Agurainen eta Zornotzan lehiatutako lasterketetan zazpigarren eta hirugarren sailkatu zen. Joan zen astean, aldiz, Obanosen (Nafarroa) 28. amaitu zuen, iskiotibialeko arazoekin, baina lidertzari eustea lortu zuen. ■ J.D.

Zaldibarren areto futbol torneoaren jokatu dute

Irailaren 8an, 9an eta 16an Zaldibarko kiroldegian jokatu den areto futbol torneoaren Durangaldeko talderik onenak batuko ditu. Honako talde

hauek parte hartuko dute: Mallabia areto futbol taldea, Eloorrioko Buskantza, Sasikoa Durango, Kurutzia ikastola, Saltzaileak Ermua, Abadiñoko Lagun, Abadiñoko Gaztetxe eta Iurretako Dantxari. Mallabiako areto futbol taldeak antolatu du torneoaren. Jardunaldiak 16:00etan hasi eta 19:00etan amaituko dira. ■ J.D.

Euskal-nafar zirkuituan, hirugarren

Gorka Bizkarra (Saltoki Triki-deak taldea) triatloiko euskal-nafar zirkuituan hirugarren postuan geratu da. Hamar triatloitan lortutako bost puntuazio onenekin osatzen dute sailkapena eta mañariarra hirugarren urtez jarraian igoko da podiumera. Iaz bera izan zen sailkapeneko irabazlea eta 2010ean hirugarren amaitu zuen. Aurten, Jon Unanue eta Egoitz Zalakain geratu dira bere aurretik. Sari banaketa, seguruenik, Donostian izango da, abenduan edo urtarrilean.

Bestalde, irail amaieran distantzia luzeko Espainiako txapelketan parte hartuko du Bartzelonan. Lehenengoz parte hartuko du *Iron man* distantziako proba batean (3,8 km igerian, 180 km bizikletan eta 42 km korrika). ■ J. D.

ADITUAREN TXOKOA

Gotzon Gomez
Errugbi entrenatzailea



Gernika R.T. European

Aurten eta aurreneko aldiz, Hegoaldeko talde bat Europa mailako errugbi txapelketa batean ariko da. Bizkaia Gernika R.T. hain zuzen ere, eta Amlin Challenge Cup txapelketan (futboleko Europa Leaguen parekoa). Iaz Espainiako Ligan hirugarren postuan gelditu bazen ere, aurreko biek, bai VRAC Quesos Entrepinares txapelkunak, bai Ordiziak txapelketa honetan parte hartzeari uko egin ostean, basurdeek aukera baliatuz parte hartzea erabaki zuten.

Guztira hogeita hamar talde dira bost multzotan banatuta. Gernikaren aurkariak Femi-CZ VEA Rovigo italiarra, TOP 14an aritzen den USAP Perpignan talde kataluniarra eta Worcester Warriors talde ingelesa izango dira. Joan-eterriko partidak izango dira, beraz guztira gutxienez sei partida jokatu beharko dituzte basurdeek.

Denboraldi honi aurre egin ahal izateko talde handia osatzen ari dira Gernika aldean. Ohiko atzeritarrez gain, Txantxa Jimenezek zuzentzen duen taldeak eskarmentu handiko jokalaririk euskaldunak ere fitxatu ditu: Mirones, Lopategi eta Unai Lasa, besteak beste.

Lehen aurkaria Worcester Warriors talde ingelesa izango dute, urriaren 13an. Multzo bakoitzeko talde bakarrak egiten du aurrera eta oso gaitza izango dute gernikarrek, ez bakarrik aurrera egitea, baita partida bakarra irabaztea ere; normalena garaipenik ez lortzea litzateke, beste hiru taldeekin dagoen aldea ikusirik. Beraz, San Faustoetan beste planik ez baduzue aukera ona izan daiteke Urbietara hurbiltzea.

Gaztetxoei begirako duatloia Muntzaratzen

Hamahiru urtera arteko duatloia antolatu du Laubideta triatloi taldeak, domekarako

Abadiñoko Laubideta Triatloi Taldeak hamahiru urtera arteko Duatloi Txikia antolatuko du domekan, Muntzaratzen. Aurten hirugarren aldiz izango du. Iaz ia berrehun gaztetxok parte hartu zuten ekimenean.

Lasterketarako izen-ematea (euro bat) 10:00etatik 11:00etara izango da Muntzaratzeko aterpean. Gaztetxoak

taldeetan banatuko dituzte adin tartean arabera eta lehenengoak, bost urtera artekoak, 11:30ean irtengo dira. Auzoan zehar antolatutako ibilbidean ibiliko dira korrika lehenengo, eta bizikletan gero. Duatloi Txikian parte hartzen dutenei jandana eta erregaluak emango dizkiete lasterketa amaitzen dutenean. ■ J.D.

'Sarkai' hil da, Alpinoko kidea eta mendizalea

Iñaki Calvo: "Oso pertsona alai zen eta mundu guztiagaz hartueman ona zuen"

Francisco Alzaga Uribelarra *Sarkai* astelehenean hil zen, 63 urte zituela. Alpinoko mendizale taldeko kidea zen 1973az geroztik. Hileta elizkizunak Uribarriko Andra Maria basilikan egin zituzten, martitzen arratsaldean.

Alpinok argitaratzen duen *Katazka* aldizkariako arduradunetako bat ere izan zen *Sarkai* 70eko hamarkadan. Iñaki Calvo Alpinoko presidentek "mendizale amorratua" zela gogoratu

du: "Oso pertsona alai ere bazen, beti umoretsu zegoen eta mundu guztiagaz hartueman ona zuen". ■ J.D.



'Sarkai', irudian. I. Irababal

Jatetxe gida



Juliantxu Jatetxea

Iturriza 2, Berriz
Tel.: 94 682 40 77

Karta.
Txuleta errea.
75 lagunentzako jangela.



Plateruena kafe antzokia

Landako etorbidea 4-a
Tel.: 94 603 03 00

Eguneko menua astelehenetik zapatara.
Taldeentzako menu adostuak.
Askariak.



Pedro Juan

San Antonio, 1 Berriz
Tel.: 94 682 62 46

Eguneko menua.
Karta.
Domeka, astelehen eta martitzen gauetan itxita.



Jon Soloeta Huri-Barrena Jatetxea

Huribarrena 8, Otxandio
Tel.: 945 45 01 25

Karta. Ardoak.
Eguneko menua.
Asteburuetan menu berezia.



Elorrioko Batzokia

Urarka 13, Elorrio
Tel.: 94 658 32 18

Gosariak. Pintxoak.
Eguneko menua. Asteburuko menuak.
Plater konbinatuak, bokatak, pizzak.
Pintxo kateringua. Zorion askariak.

batzokielorrio www.batzokielorrio.com



Errekondo Jatetxea

Andra Mari 1, Mañaria
Tel.: 94 681 85 77

Eguneko menua astelehenetik ostirelera.
Asteburuetan bazkariak eta afariak enkarguz.
Espezialitatea: Txuleta errea.

AGENDA >

> ANBOTOkoko agendan ezer iragarri gura baduzu, agenda@anboto.org helbidera idatzi edo 94 623 25 23 telefonora deitu egiguzu, eguazten eguerdiaren aurretik.



Irailaren 8an, 23:30ean
Elorriko jaietako txosnagunean

BEBE

Otsailean kaleratu zuen *Un poquito de Rocanrol* izeneko diskoa eta hori abestiak aurkezteko biraren barruan etorriko da Extremadurako (Espainia) Bebe abeslaria. Elorriko Ferixa Nausikoetan eskainiko du kontzertua. Bihar izango da zuzeneko, 23:30etik aurrera, txosna gunean.

BAKARRIZKETA

DURANGO

>> Irailaren 14an, **Ernesto Sevilla**-ren bakarrizketa, 22:00etan, Plateruenean.

BERTSO-AFARIA

ZALDIBAR

>> Irailaren 21ean, **Maialen Lujanbio** eta **Unai Iturriagagaz** bertso afaria, 21:00etan, Goierriko auzo-etxean. Txartelak, irailaren 18ra arte daude salgai, Paularen Zokoan, Karobin eta Kizkitzan.

IKASTAROA

DURANGO

>> Irailaren 10etik 27ra izen-ematea, **Urtxintxa eskolaren Asialdiko Begirale eta Zuzendari ikastarorako**. Laubideta 6ko Durangoko Merinaldearen Amankomunazgoaren bulegoan.

JAIK

ABADIÑO (Muntsartz)

>> Irailaren 8an, **Nesken arteko futbito txapelketa**, 16:30ean. **Donien-atxa** botatzea, 19:00etan.

ELORRIO

>> Irailaren 7an, **meza** hildako jubilatuen omenez, 12:00etan. **Piskolabisa**, 13:00etan, Aldatsekuan, Elorriko jubilatuentzat. **Jolas-parkeak**, 16:00etan, frontoian, Urarkan eta Kanpokalen. **Areto futbol partidak**, 17:30ean eta 19:00etan, kiroldegian. **Tropikana son**, erromeria eta dantza txapelketa, 19:00etan. **Standa banda**, 19:30ean, plazan. **Jaietako errugbi partida**, 19:30ean. **La luna y El Conventiyo**, tango argentinarrak, 21:00etan, Arriolan. **Idi-proba txapelketa**, 22:00etan, probalekuan. **Suzko zezena**, 22:30ean, plazan. **Caoba** berbena, 23:00etan, Urarkan.

>> Irailaren 8an, **Sukalki Eguna**, 08:00etan, Aldatsekuan. **Jolas parkeak**, 11:30ean eta 17:00etan, frontoian, Urarkan eta Kanpokalen. **Areto futbol partidak**, 17:30etan eta 19:00etan, kiroldegian. **Senegalgo Oudiodial** taldearen musika eta dantzak, 17:00etan, Aldatsekuan. **Txokolatada**, 18:00etan, plazan. **Mozorro eta karrozen jaitsiera**, 18:30ean. **Oihan Vega Dja**, 18:45ean. **Taberna ibiltaria**, 19:00etan. **Idi-proba txapelketa**, 22:00etan, probalekuan. **Beberen** kontzertua, 23:30ean, txosnagunean. **Arancel** taldeagaz berbena, 23:30ean.

>> Irailaren 9an, **Elkartasunaren jaialdia**, goizean zehar. **Herri kirolak**, 13:00etan. **Umeen danborrada**, 17:00etan. Bertso saioa, 18:30ean, **Alaia Martin, Aitor Mendiluze, Julio Soto eta Peru Madalena**, Casajara jauregian. **Herrixa dantzan**, 20:00etan, plazan.

>> Irailaren 10ean, **Idi-proba txapelketa**, 22:00etan, probalekuan.

IZURTZA

>> Irailaren 7an, **frontenis txapelketa**, 18:30ean. **Dj-en emanaldia**, 22:00etan, Gazte Lekuan.

>> Irailaren 8an, Disfrax gaua. Gaia: **kirolak**. **Kalejira** Jaizale taldeagaz, 10:00etan. **Meza**, 11:00etan, Erdoitzako elizan. **Mendigain** dantza taldearen ekitaldia. **Pilota partidak**, 12:30etan, frontoian. **XXI Mountain bike** ibilaldia, 16:30ean. **Igel txapelketa**, 18:00etan, Azkonizagan. **Tortila txapelketa**, 19:00etan. Tortilaren aurkezpena, 20:30etan. **Herri bazkaria**, 21:00etan.

Luhartz erromeria, 23:00etan. Goizaldean, **txokolatada**.

>> Irailaren 9an, **Kalejira**, 10:00etan. **Meza**, 11:00etan, Santo Tomas elizan. **Mendigain** dantza taldea, 12:00etan. Bertso saioa: **Miren Amuriza eta Garikoitz Sarriugarte**. **Gorriti eta bere abereak**, 13:30ean. **Jubilatu bazkaria**, 14:30ean. **Umeen jolasak**, 15:30ean. **Mus txapelketa**, 17:00etan. **Potxin eta Patxin** pailazoak, 17:30ean.

JAIALDIA

DURANGO

>> Irailaren 8an, **Senegal jaialdia**, 20:00etan, Plateruenean.

MUSIKA

ELORRIO

>> Irailaren 7an, Fernando Valsega y la Orquesta Cachivache taldea, **La luna en el Conventiyo** musika eta dantza ikuskizuna, 21:00etan, Arriolan.

TAILERRA

DURANGO

>> Amazulo Kooperatiban. **Irailan, Haurdunaldi eta erditze prestakuntza** tailerra. Asteleheneretan, 10:30etik 12:00etara; eta egueneretan, 18:00etatik 19:30era. Irailaren 5ean hasita, **Erditzeos-tea: zoru pelbikoa eta abdomena berreskuratu** tailerra. Irailan eta urrian, **Haur masaje** ikastaroa, eguaztenetan, 18:30etik 19:30era. Informazio gehiago eta izen ematea: 946570087 edo 688860845 telefono zenbakietan, amazulo.koop@gmail.com helbidean, edo Durangoko Barrenkale 18 zkan.

ZINEMA

ELORRIO

>> Irailaren 13an, **Por las noches ellas bailan**, 19:30ean, Iturri kultur etxean.

>> Irailaren 20an, **Mi reencarnación**, 19:30ean, kultur etxean.

ZINEMA

DURANGO

Zugaza

Abraham Lincoln
Zuzendaria: Timur Bekmambetov
barikua 7: 19:30/22:30
zapatua 8: 19:30/22:30
domeka 9: 20:30
astelehena 10: 19:00/22:00
martitzena 11: 20:00

Umeen zinema

Las aventuras de Tadeo Jones 3D
Zuzendaria: Enrique Gato
zapatua 8: 17:00
domeka 9: 16:00/18:15

Zineforuma

Moonrise Kingdom
Zuzendaria: Wes Anderson
eguna 13: 20:3

ELORRIO

Arriola

Programazio berria urritik aurrera

ZORNOTZA

Zornotza Aretoa

Programazio berria urritik aurrera




Irailaren 14an, 22:00etan, Plateruenean

ERNESTO SEVILLA

Ernesto Sevilla umoregilearen bakarrizketa entzun ahalko da irailaren 14an Durangoko Plateruenean. Espainiako telebista kate publikoko *Muchachada Nui* saioan gidoilari eta zuzendari aritu izan da Ernesto Sevilla, eta *El Club de La Comedia* saioan ere jarduten du barre algarak eragiten bakarrizketekin.

UZTAILEROKO AGENDA	
8,9,15,16	IURRETA TXIRRINDULARI ELKARTEA 09:00 Hainbat ibilbide (82-92 km)
9	IURRETAKO KOFRADIEN EGUNA. Laixiar zelaietan
17-20	IURRETAKO HERRI BIBLIOTEKA 17tik 20ra, Making gazteentzako tailerrak 18an, Haurren irakurketa kluba (8-10 urte) 17:00-17:45 Aurkezpena
19	KULTUR TAILERRAK 12/13 ikasturterako matrikula epea zabalik
19	ODOL EMOTEA 16:30-21:00 Odol emotea. Txonpolo elkarte
19	IURRETAKO UDALA 09:00 Iurretako kale azoka
21	AITTE SAN MIGEL JAI BATZORDEA San Migel jaiak. 18:00 "Pirritx eta Porrotx" Olaburu frontoian Sarrerak Ibarretxe kultur etxean: umeak euro 1, helduak 3 euro. Irailaren 6tik 13ra bitartean Iurretan erroldatuta dauden 10 urtetik beherako umeentzat (ume bakoitza heldu bakarrarekin). Irailaren 14tik aurrera ez erroldatuentzako.

DENBORAPASAK

	Mitxeleta	▼	Burdin-bide	▼	Iseka
	Hegazti	▶	*Irudiko ibaia	▼	
Proiektuak	Metalen erakarlea	▶	Bat gehi bat	▶	
		▶			
Emakume izena	Zintzo	▼	Non atzizkia	▶	
Indioa	Bezain-beste	▶	Lurra	▶	
		▶			
Kanpo	Landare urintsua	▶	12	▶	
		▶			
Erronka jotzeko hitz	▼		Bokala	▶	Barazki lekadunak
Putzuak			Metalezko soka	▶	
▶			50	▶	
			Hori argi	▶	
1000, 1 eta 500	▶		Bihi	▶	
Begira			Ohorezko hitz emate	▶	
▶			Emaizak	▶	
			Molib-denoa	▶	
Bukaera	▶			▶	
Ukapen				▶	
▶			Toka, naiz	▶	

ZORION AGURRAK

zorionak@anboto.org • Bixente Kapanaga 9, 48215 Iurreta



Eztakigu nundik jotzen dotzun haiziek... baina maite zaitugu! Lagun poteatzaileen partez, zorionak **Xabi!**



Zorionak **Matxalen!** 9 urte bete zenituen uztailaren 23an. Ederto ospatu genuen oportretan. Segi beti bezain jator! Ama eta aita.



Txipli, txapla, pun! **Suhar** txapeldun! Zorionak eta musu handi handi bat! Maite zaitugu!



Gaur, irailak 7, **Robertok** urteak betetzen ditu. Zorionak Matienako zure familiaren partez eta egun ona pasa deizula!



A ze parea! **Danelek**, atzo, irailaren 6an 5 urte bete zituen eta **Aritzak** 13an beteko ditu. Zorionak bikote eta musu erraldoi bana!



Zorionak petarda! Badakigu ondo ospatu zendule zure eguna! Hurrengoan be ingu holako bat! Musu handi bat!



Jose Antonio Agirre, 4 - 94 620 08 69
Avda. Montevideo, 1 - 94 620 43 83

Hamabostero, jasotako zorion-agur guztien tarta bat zotz egingo dugu. Horretarako beharrezkoa da bialdutako mezuagaz batera telefono zenbakia emotea.

SUDOKUAK

1

		7	9	4	
	3	5		7	6
7	6	3	4		2
8		3	5	9	
9	5		8	1	
	2	9			
1	4			3	5
2	7	5	3	9	
6	5		2		8

2

9	3				
	5	8		7	6
7					
	9				7
1					
			4	2	5
8		5			6
	4		3	8	2
			9	5	

BOTIKAK

- Barikua, 7**
09:00-09:00
• Unamunzaga (Muruetatorre 2C - Durango)
- Zapatua, 8**
09:00-09:00
• Jaio-Olabarrieta (Erreka 6 - Elorrio)
- Domeka, 9**
09:00-13:30
• Balenciaga (Ezkurdi plaza 8 - Durango)
- Astelehena, 10**
09:00-09:00
• Navarro (Artekale, 6, Durango)
- Martitzena, 11**
09:00-09:00
• Campillo (Montebideo 24- Durango)
- Eguaztena, 12**
09:00-09:00
• Sagastizabal (Askatasun Etorb. 19 - Durango)
- Eguena, 13**
09:00-09:00
• Gaztelumendi (J.A. Abasolo 2 - Durango)

TELEFONO INTERESGARRIAK

- SOS Deiak.....112**
DYA94 620 28 00
Gurutze Gorria94 681 09 49
Osakidetza94 600 72 00
Ertzaintza94 466 93 00
Suhiltzaileak112
- GARRAIOAK**
Euskotren.....902 54 32 10
Bizkaibus94 448 40 80
Pesa902 10 12 10
Continental Auto945 286 466
- TAXIAK**
Abadiño946 814 470
Matiena606 459 988
Durango Geltokia....946 811 001
Elorrio Geltokia946 820 040
J.L. Uriarte670 402 002
I. Estebez670 678 273
M Galeano.....670 409 330
Iurreta946 201 565
Taxi auzunea688 618 690
- UDALAK**
Abadiño94 621 55 30
Atxondo94 682 10 09
Berriz94 682 45 84
Durango94 603 00 00
- Elorrio94 658 27 12
Garai94 681 63 93
Iurreta94 620 12 00
Izurtza94 681 35 48
Mallabia943 17 14 61
Mañaria94 681 89 98
Otxandio945 45 00 20
Zaldibar94 682 70 16
- UDALZAINGOA**
Abadiño94 621 55 33
Berriz94 682 40 36
Durango94 603 00 10
Elorrio94 682 02 18
Iurreta94 620 08 88
- EGURALDIA** ☀️ ☁️ 🌧️ 🌨️
- 29° BARIKUA** ☀️
31° ZAPATUA ☀️
31° DOMEKA ☁️
26° ASTELEHENA ☁️
25° MARTITZENA 🌧️

AZOKA-BASERRITIK PLAZARA



Abadiño (Traña-Matiena) - Eguaztenetan
10:00etatik aurrera
Durango - Zapatu goizetan
Zornotza - Domeka goizetan

ASTEKO SALNEURRIAK:

- Letxuga 0,80 euro
Tomatea 3,50 euro/kg
Piperrak 1,70 euro/doz
Bainak 5 euro/kg
Kalabazina 1,80 euro/kg
Azenarioak 1,50 euro/tx
Arraultzak 3,60 euro
Idiazabal gazta 16,50 e/kg
Gari ogia 3,30 euro

SOLUZIOAK

6	3	9
2	8	7
4	8	6
3	5	3
1	7	2
4	8	1
6	5	6
8	4	1
7	6	9
2	3	7
4	1	3
6	7	6
5	2	8
5	2	8

3	2	6	4	9	5	1	7
5	4	7	3	6	8	2	8
8	7	6	5	2	1	3	6
6	7	1	4	2	5	3	8
1	5	2	9	6	3	7	4
2	3	8	5	1	7	6	4
7	6	8	3	1	4	2	1
9	1	8	4	7	6	3	9
6	2	7	8	5	1	4	3

K	U	V	N	•	O	K	U
V	R	E	I	V	M	V	•
K	V	L	Z	U	•	O	S
E	L	V	•	D	I	W	•
L	•	K	V	N	I	S	O
•	E	•	L	U	X	V	•
V	D	N	E	W	•	L	V
N	I	V	L	•	N	I	•
I	B	•	E	N	O	G	I
V	N	V	M	I	•	E	•
R	E	R	I	•			
I	R	O	X	L			
•	T	•	T	•			



Antxoadun azeitunak

Terraza batean jarrita dago. Aurrean bermuta eta azeituna plater bat. Antxoadun oli-bak dira. Begira-begira geratzen da. Nork demontre asmatuko ote zituen azeituna beteak? Derrepentean bururatu zitzaien, edo eboluzioaren ondorio ote dira? Ze teknologia erabili ote zuen? Hezurra atera, antxoa zatia sartu. Eta zergatik antxoa eta ez beste ezer? Gero oliba zatia berriro sartu zuloa estaltzeko. Miragarria. Zorotzat hartuko ote zuten, edo bisionariotzat? Gizonezkoa izango zen ala andrazkoa? Agian emazteari bururatu baina senarrak aterako zuen argira asmakizun xelebrea. Berarentzako ospea. Ez litzateke lehen aldia izango. Aberastuko zen agian, edo jaiio bezala, pobre hil.

Agian emazteari bururatu baina senarrak aterako zuen argira asmakizun xelebrea. Berarentzako ospea

Oliba bat eraman du ahora, eta bermutari txurrut egin dio. Eta pentsatu du balentria behar dela ideia zoroak egi bihurtzeko. Uste du azeituna beteak asmatu zituenak bezalakoak beharko lirakeela geure mundu txiki hau iraultzeko. Zoroak edo bisionarioak baina, edozelan ere, ausartak. Ausarta izan behar delako betikoa eta betikotzat duzuna zulotu, hustu, bete, estali, eta gutizi bihurtzeko.

Eta horretan dabilela pentsatu du: "Zenbat oliba alperrik galduko ote zituzten zuloa egiten asmatu arte?". Batek badaki.

Azken txurrutada da. Gaur ere larregi edan du.

Ausarta izan behar delako betikoa eta betikotzat duzuna zulotu, hustu, bete, estali, eta gutizi bihurtzeko

"Organoa ikasi eta jarraitzea ez da erraza; oso lotua da"

Mallabiko organoak 100 urte bete ditu eta duela 50 urte 'Mallabiko Ama' sortu zuen Emilio Praderak

Mallabiko elizaren koruan ordu asko sartutakoak dira Emilio eta Julian Pradera lehengusuak, biak tenoreak. Emilio organo jotzaileak omenaldia jaso du aurtengo andramarietan, duela 50 urte sortu zuelako *Mallabiko Ama* kantua. Aitarenean alboan ikasi zuen organoa jotzen, eta hainbat kantu eta meza euskaratu ditu. Egingako lana apal-apal gogoratzen du Emiliok. Lehengusuak eta biek koruan gaztetan izaten zuten giroari buruz jardun dute kontu-kontari.

Zelan, nondik sortu zen 'Mallabiko Ama' kantua?

Emilio Pradera: Bertsoak dira. Ez geneukan Mallabiko Amarentzako kanturik, eta egitea pentsatu nuen.

Julian Pradera: Beronek prestatu zuen eta gero letra ipini, aldatu eta entseguak egin genituen Andra Mari Egunean kantua inaurratzeko.

Orain mallabitar gehienek jakingo dute...

J.P.: Bai, elizara etortzen direnek denek bai, eta kanpoko jende askok ere bai. Baina ez hori bakarrik, honek *Aita Gurea* musika desberdin batez ere berak atera zion abadeari, Mallabiko mezak euskaraz ere hiru beronek ateratakoak dira...

E.P.: Hainbeste ere ez, hainbeste ez!

J.P.: Bai. Lehen latinez kantatzen zen, eta kredoa ere berak euska-

ratu zuen. Euskaraz ateratakoak, honek kanta asko dauzka.

Zelan gogoratzen duzue latinetik euskararako aldaketa?

J.P.: Denboragaz, entseguak eta entseguakegiten genituen. Koruan genbiltzanok ere, lehenengo Emiliogaz entseatu eta apurka-apurka ikasi genituen.

Aitak jotzen zuen organoa.

E.P.: Umetatik egon nintzen aitagaz koruan; nik triplea kantatzen nuen [korurako ahotza, sopra-

notik gora]. Sol ikurra banekien, erabiltzen genuen triplea nintzelako eta praktikatuta neukan. Fa ikurrak ematen zuen gerra.

Gaur egun ez da organo jotzaile asko egongo.

E.P.: Ibili izan naiz irakasten, baina gero jarraitzea ez da hain erraza. Organoak lotu egiten zaitu. Orduak dira, eta hiletak eta beste, oso lotua da.

J.P.: Domeketan-eta ez da erraza gazteria lotzea. Juergak-eta...

E.P.: Ez zen horrenbeste juerga egoten lehen.

J.P.: Baina gazte asko ere ez ginen egoten. Meza ostean musika erakusten zigun Emiliok, kantuan eta musika. Hamabost hamasei gazte egoten ginen domekero.

Ehun urte bete ditu organoak. Ondozaindu behar da?



Julian eta Emilio Pradera

Mallabiarrak dira, lehengusuak

Emiliok organo jotzaileak duela 50 urte sortu zuen *Mallabiko Ama* abestia

Koruko kidea da Julian. Kanpandorrearen ardura dauka.

Abuztuaren 31tik aurrera, **ZABALIKI!**

- Eguneko menua
- Asteburuetako menua
- Merendolak...



KULTUR EGITARAUA SAREAN ZINTZILIK AURKITUKO DUZU



www.plateruena.net

PLATERUENA KAFE ANTZOKIA Landako etorbidea, 4 A - 48200 Durango Jateketa: 946030300

lokaletik

AT

Durangaldeko talde berrientzako plaza. Hilean behin kontzertuak Plateruenean. Parte hartu gura baduzu, idatzi kultura@plateruena.net helbidera.

IRAILAK 15
22:00etan...

THE GREG'S MURDER
THE MOCKERS
KROME

